

# **MOTIBAZIOAREN ONTZIA**

**INSTITUTUKO IKASLEEN EUSKARAREKIKO  
JARRERAK LANTZEKO PROPOSAMENA**

*Eizmendi Arsuaga, Iñaki  
ebete hizkuntza-zerbitzuak  
2014-2015 ikasturtea*

## Aurkibidea:

1.- Aurkezpena

2.- Jarreretan eragiteko oinarriak

2.1.- Oinarri nagusiak

2.2.- Ikasleen ezaugarrietara egokitzea

2.3.- Progresioa

2.4.- Oinarriak eta edukiak lotzeko modua

2.5.- Erabileran eragiteko bideetako bat

3.- Progresioaren ideia

4.- Progresioaren taula

5.- Moduluen taula

6.- Ikasleen Euskara Batzordea

Eranskinak: Modulu bakoitzaren azalpen laburra

- 1 modulu: Erabilera institutuan
- 2 modulu: Hizkuntza-aniztasuna
- 3 modulu: Eleaniztasuna eta gertukoa zaintzea
- 4 modulu: Euskararen erretratua
- 5 modulu: Instituturako erronka
- 6 modulu: Ohitura aldaketen frogak
- 7 modulu: Elkarrizketak sortzen
- 8 modulu: Nolako izan nahi dut?
- 9 modulu: Hiru B: Bitxia, Betikoa eta Berria
- 10 modulu: Erraza da euskararekin harremana indartzea?
- 11 modulu: Zergatik eta nola sustatu euskara?
- 12 modulu: Erabileran eragiten duten faktoreak
- 13 modulu: Zer aurkituko duzue? I
- 14 modulu: Zer aurkituko duzue? II

## 1 – Sarrera

Jarduera hauekin lortu nahi da bigarren hezkuntzako ikasleek euskararen erabileraren inguruan hausnartzea eta bide horretatik euskara gero eta gehiago erabiltzeko jokabidea bultzatzea: gero eta egoera gehiagotan eta gero eta harreman gehiagotan.

Kontuan izan behar da jarreretan eragiteko proposatzen diren moduluak (dinamika eta jarduera sortak), oinarri batzuen arabera antolatzen direla. Hau da, zer landu nahi dugun jakinda errazagoa da dinamikak eta jarduerak lantzea eta horiek progresio batean kokatzea.

Hurrengo orrietan oinarriak eta progresioa aurkezten dira, eta modulu bakoitza eta jarduera bakoitzaren azalpenak ere aurkezten dira.

## 2– Jarreretan eragiteko oinarriak:

### 2.1– Oinarri nagusiak:

Ikasleen euskararekiko jarrerak lantzerakoan, lau hauek izango dira oinarri nagusiak:

- Identitatea lantzea
- *Nolako euskalduna izan nahi dut?* galderari erantzutea
- Gero eta euskara gehiago erabiltzeko zailtasunak aztertzea
- Gero eta euskara gehiago erabiltzeko jokabidea lantzea

**Identitatea lantzea:** Zer da gaur egun euskaldun izatea? Zein baliorekin lotzen da eta zergatik? Zein baliorekin lotzea nahi genuke? Euskaldun izateko modu bakarra al dago? Euskara jakitea–erabiltzeak nolako lotura du euskaldun izatearekin? Eta abar. Modu horretako gaiak aztertzea izango da abiapuntua ondorengo oinarriak landu ahal izateko.

*Nolako euskalduna izan nahi dut?* galderari erantzutea: euskaldun izateko hainbat modu baldin badaude, nik nolakoa izan nahi dut? Euskara asko, askorekin eta egoera askotan erabili nahi al nuke? Gaur egun baino euskara gehiago erabili nahi al nuke? Euskaraz bizi nahi al nuke? Modu horretako galderak erantzutea landuko da, irakasleek esan beharrean nolakoak izan behar duten, beraiek iritsi behar dute dena delako ondorioetara eta irakasleek hausnarketak bideratu egingo dituzte.

**Gero eta euskara gehiago erabiltzeko zailtasunak aztertzea:** Gero eta euskara gehiago erabili nahi baldin badut, non ditut zailtasunak horretarako? Kanpo faktoreak eta barne faktoreak aztertuko dira. Kanpo faktoretzat hartuko dira egoera soziolinguistikoa, lege aldetik babes falta, eta abar. Barne faktoretzat hartuko dira gaitasun aldetik mugak (gazte hizkeraren kasuan, adibidez) edota ohitura kontuak (gure artean gaztelaniaz egiteko ohitura dugu...).

**Gero eta euskara gehiago erabiltzeko jokabidea lantzea:** Zailtasunak gainditzeko baliabideak eskaintzea eta jokabide aktiboak sustatzea bilatuko da. Zer eta nola egin dezaket zailtasunak gainditzeko eta euskara gero eta gehiago erabiltzeko?

## 2.2– Ikasleen ezaugarrietara egokitzea

Lau oinarri nagusi hauek jarduera zehaztutara ekartzekoan, beste irizpide bat ere hartuko da kontuan: Institutuko ikasleek euskararekin duten harremana. Ez dute harreman bera euskararekin institutuko gazteek, testuinguru oso euskaldun bateko gazteek edo testuinguru oso erdaldun batekoek Jarrerren aldetik landu beharrekoa baldintzatzen du euskararekin duten harreman horrek: bai abiapuntua, bai helburuak, baita garatu beharreko bideak ere.

Institutuko ikasleak euskara nahiko urrun dutenen artean kokatzen dira. Ez da azterketa berezirik egin ondorio honetara iristeko. Ikasleen ezaugarriak baloratu kokatu dira multzo horretan. Hori egin da lagungarria delako dinamikak zehazterako garaian Zer esan nahi du horrek? Gehienek euskara eskolatik jasotzen du eta handik kanpo harreman ia guztiak gaztelaniaz dira: lagunartekoak, familiakoak, eskola orduz kanpoko jardueretakoak, telebista... Gazteen arteko harremanetan gaztelania nagusi da, eta, gainera, hizkuntza horretan erraztasun eta aberastasun handiagoa dute euskararekin alderatzen bada. Noski, badira etxetik euskara jasotzen dutenak eta hainbat harreman euskaraz dituzten ikasleak ere.

Multzo horretan kokatzen direnez, hau da garatu nahi den bidea:

- Identitatean gaia landu nahi dugu: hausnartzea nahi dugu euskaldun izatearen inguruan. Ez diegu guk esango nolakoak izan behar duten, helburua beraiek hausnartzea eta beraien ondorioetara iristea da. Euskaldun izateko modu asko daude, eta hizkuntza-jokabideek (euskararen erabilerak) ere zerikusi zuzena izango du identitate horretan.
- Balioak: Zein balioekin lotzen dute euskara? Euskara balio indartsu eta modernoekin ere lotu dezaten ariketak eta dinamika egingo dira.
- Euskara gero eta gehiago erabiltzeko zailtasunak: barne faktoreak. Euskara gehiago erabiltzeko jarrera duten institutuko ikasleek zailtasunak dituzte horretarako, eta askotan barne faktoreak dira: erraztasuna, ohitura, lotsa, beldurra... Hori buruz hitz egingo da. Helburuak dira: batetik, ohartzea erabilerara mugatzen duten faktore asko norberari dagozkionak direla, eta, bestetik, zailtasun horiei aurre egiteko gai ote garen ikustea.
- Euskara gero eta gehiago erabiltzeko pausoak ematea: euskara gero eta gehiago erabiltzeko pausoak frogak eta erronkak eitea, eta, bide horretatik, erabilerara hori bizipen positiboekin lotzea. Besteak beste: lorpenekin, emozio positiboekin, norbere buruarekin gustura sentitzearekin...

- Erabilera aldetik institutuan jarri diren gutxieneko helburuetara iristen laguntzea: jarreretan eragiteko jarduera eta dinamikek lagundu behar dute institutuaren gutxieneko helburuetara errazago iristen. Irakasleek ikasleei lagundu nahi diete euskara erabili dezaten, eta, ikasleen motibazioak zertxobait garatzen badira irakasleentzat errazagoa izan behar du helburu horietara iristea.

## 2.3- Progresioa:

**Oinarrizko hausnarketatik hausnarketa garatuetara:** Landuko diren moduluetan hausnarketa izango da oinarrietako bat: gaia kokatzea, horien inguruan hitz egitea, eta abar. Hausnarketa mailan DBH1etik DBH4ra progresio bat izatea egokia ikusten da, ikasleek ere garapena izaten baitute. Beraz, bilakaera bat emango da adinean aurrera egin ahala.

**Gertuko egoeretatik beste hainbat egoeretara:** Jarreretan eragiteko moduluen bidez jokabideetan eragitera ere iritsi nahi da. Hizkuntza ohituretan aldaketak ematea ez da erraza bide hau soilik erabilita, baina lortu nahi da ikasleek hainbat froga eta ariketa egitea eta konturatzea gai direla beraien hizkuntza ohiturak garatzeko edo aldatzeko. Hasierako froga eta hausnarketak gertuko harremanen ingurukoak izango dira (ikaskideak, institutuako egoerak...) eta urtez urte garapen bat izango dute: ohiko harremanak, harreman puntualak, egoera berriak...

## **2.4– Oinarriak eta edukiak lotzeko modua**

Jarreretan eragiteko plan zehatz eta osatu bat lortu nahi da, oinarri argiekin eta helburu zehatzekin. Proposamenak frogatu ondoren, bide egokia dela ikusten bada, institutuako jardunean txertatzeko modukoa ere izatea nahi da. Horregatik, proposamenak ezaugarri hauek ditu:

- DBH1etik DBH4ra, hiru hileroko egingo diren moduluak prestatu dira: 2 saioko dinamika sortak.
- Modulu bakoitzak helburu zehatzak ditu eta aurretik zehaztutako oinarrien arabera prestatu dira: hizkuntzarekin harremana, progresioa...
- Moduluak independenteak dira: modulu bat ez egiteak ez du baldintzatzen proiektu osoa.

## **2.5– Erabileran eragiteko bideetako bat**

Azkenik, garrantzitsua da kontuan hartzean jarreretan eragiteko proposamen hau erabileran eragiteko beste proposamen batzuekin batera aurkeztu dela: erabileran zuzena eragiteko estrategiak eta tresnak eta eguneroko jardunean irakasleek erabiliko dituzten mezuak. Jarreretan eragiteko moduluak eraginkorragoak izango dira beste bi bideak ere behar bezala garatzen badira.

**3- Moduluen taula:**

	<b>1. hiruil.</b>	<b>2. hiruil.</b>	<b>3. hiruil.</b>
<b>DBH1</b>	Gaia kokatze	Institurako erronka	Hiru B: Bitxia, Betikoa eta Berria
<b>DBH2</b>	Hizkuntza-aniztasuna	Ohitura aldaketen froga	Erraza da euskararekin harremana indartzea?
<b>DBH3</b>	Eleaniztasuna eta gertukoa zaintzea	Elkarrizketak sortzen	Zergatik eta nola sustatu euskara?
<b>DBH4</b>	Euskararen erretratua	Nolakoa izan nahi dut?	Erabileran eragiten duten faktoreak
<b>Erreferenteak</b>	Zer aurkituko duzue? I Zer aurkituko duzue? II		



## 4- Gazteen euskara batzordea

Ikasleekin euskara batzordeak osatzea izan daiteke proiektuaren beste atal bat.

DBHko ikasleen euskara batzordea geletako ordezkariekin osatu daiteke: gela bakoitzetik ordezkari bat. Bi zeregin izango ditu: batetik, gela barruko saioetarako eduki batzuk prestatzea eta aurkeztea, eta, bestetik, institutuan euskararen inguruan egiten diren girotze jardueretan parte-hartzea. Institutuko arduradunek aztertu beharko dute antolaketak nolakoa izan behar duen: nork dinamizatuko duen, non bildu, noiz...

# ERABILERA INSTITUTUAN

Institutuko ikasleekin  
motibazioa lantzeko proiektua

1 / 12 modulua

## Kokatzea

*DBH1ekoekin egiteko modulua da. Erabileraren gaia kokatu nahi dugu eta, bereziki, helburu zehatz bat lortu nahi dugu: erabilerari begira mezu positiboak ematea eta ikasleei ahalegina eskatzea.*

*Erabilerari begira institutuan jarritako gutxieneko helburuetara iristen lagundu behar digu modulu honek.*

*Euskaraz egiteko eskatzen diegunean (patioan, pasiloetan...) zergatik eskatzen diegun ulertzeko eta beraiek modu positiboan hartzeko balio behar du modulu honek.*

*Eizmendi Arsuaga, Iñaki  
ebete hizkuntza-zerbitzuak*

## Helburuak:

- Euskararen erabilerari buruz hitz egitea
- Euskara erabiltzeaz harro sentitzea: errefortzu positiboak ematea
- Euskara gero eta gehiago erabiltzera gonbidatzea

## Lehenengo saioaren azalpena:

- Gaia kokatuko dugu: ikastetxearen helburuak hizkuntzen ezagutza eta euskararen erabilerari dagokionez, gure kezka erabileraren inguruan...
- Galdera: euskara asko erabiltzen al dute?
- Taldeka jarriko ditugu eta herriko planoan banatuko diegu: plaza, kultur etxea, kiroldegia... Beraientzat ohiko lekuak direnak jarriko ditugu. Margotu egin behar dituzte: zein hizkuntza erabiltzen dute gune horietan? Guztia euskaraz = gorria, gehiena euskaraz = berdea, gehiena gaztelaniaz = urdina eta guztia gaztelaniaz = morea.
- Amaitzen dutenean, horri buruz hitz egingo dugu: asko erabiltzen al dute? Non gehien? Non gutxien? Zergatik?
- Ondoren, ikastetxeko mapa banatuko diegu: gela, pasiloak, patioa, jangela... Hori ere margotuko dute.
- Horri buruz hitz egingo dugu: non erabiltzen dute gehien? Non gutxien? Zergatik? Kaleko egoeretan baino gehiago erabiltzen al dute?...
- Mezu bat emango diegu eta horri buruz hitz egingo dugu:
  - o Mezua: gaztelania gehiago erabiltzen duzue askok, baina euskara ere asko erabiltzen duzue. Gutxienez ikastetxean. Saiatuko gara ahalik eta mezu positiboena ematen: badakigu askorentzat gaztelaniara jotzea dela errazena eta horregatik baloratzen dugu euskaraz aritzeko ahalegina, gero eta erraztasun gehiago duzue, eta abar.
  - o Elkarrizketarako galderak: zergatik erabiltzen dugu gaztelania gehiago? Zer egin dezakegu euskara gehiago erabiltzeko?...

## Bigarren saioaren azalpena:

- Euskararen erabileraren gaiarekin jarraitu nahi dugula aipatuko diegu.
- Ikusi dugu euskara ere asko erabiltzen dutela. Erabilera hori handia edo txikia den neurtzeko modu bat bizipenak direla aipatuko diegu: zein gauza positiboekin lotzen dugu euskara?

- Ideien ekaitza moduko bat egingo dugu eta horrelako galderak erabiliko ditugu lagungarri:
  - o Euskara aritu diren zein egoera gogoratzen dituzte eta beraientzat positiboak-pozgarriak izan direnak? Adibidez: txangoak, jaialdiak, ekitaldiak...
  - o Ikastetxearekin lotutakoak zein dira?
  - o Ikastetxearekin lotura ez dutenak? Kanpaldiak? Kirola?...
  - o Gustatu zaizkien antzerki edo emanaldiak? Kultura etxean, zineman...
  - o Gustuko euskarazko musika taldeak edo abestiak?
  - o ...
- Ahalik eta zerrenda luzeena osatuko dugu.
- Mezua emango diegu:
  - o Euskaraz gauza asko egiten dituzue, euskaraz ere bizipen handiak eta indartsuak dituzue. Euskaraz ere ondo pasatzen duzue.
  - o Hori guretzat garrantzitsua da: irakasleak gara baina guk ikasleek euskara ikasteaz gain euskaraz ere bizitzea nahi dugu.
  - o Aurreko saioan ikusi dugu gertuko harremanetan (ikastetxean) euskara gehiago erabiltzen dutela beste harremanetan (kalean) baino. Zenbat eta gehiago zaindu euskararen erabilera gertuko harremanetan, gero eta erraztasun handiagoa izango dute kaleko egoeretan euskara erabiltzeko.
  - o Eta hori lortzen badute, bizipen positiboen zerrenda amaigabea izan daiteke.
  - o Guk nahio dugu zuek hizkuntza bat baino gehiago ondo ikastea. Eta ikasteko ondo ikasteko asko erabili behar dira. Horregatik euskararen erabilerarekin lagundu nahi dizuegu.
  - o Euskararen erabilerarekin lagundu nahi dizuegunez, askotan eskatuko dizuegu ahalegina. Nahiko genuke zuek ahalegina egitea.
- Erronka bat ere proposatu diezaiekegu: zer egin dezakegu bizi garen inguruan datozen asteetan euskaraz? (normalean egiten ez dugun zerbait). Adibidez: erosketetan euskara erabiltzen saiatu, ekitaldiren bat ikusi, zinea euskaraz... Aukeratu dezatela egingarria den zerbait eta egin dezaten gonbidatu.

# Hizkuntza–aniztasuna Hizkuntza–ekologia

Institutuko ikasleekin motibazioa lantzeko  
proiektua

2/12 modulua

## Kokatzea

*DBH2koekin lehenengo hiru hilekoan egiteko modulua da.*

*Euskara eta norberaren identitatearen arteko harremana aztertzen hasi nahi dugu, eta abiapuntu moduan hizkuntza–aniztasuna hartuko dugu.*

*Eizmendi Arsuaga, Iñaki  
ebete hizkuntza–zerbitzuak*

## Helburuak:

- Hizkuntza-aniztasunari buruz eta hizkuntza-ekologiari buruz hitz egiten hastea, eta, bide horretatik, euskarak guretzat duen balioa ikustea.
- Aniztasunaren aldeko mezuak ematea.

## Lehenengo saioaren azalpena:

- Gaia kokatuko dugu. Hau izan dateke, gutxi gora behera, azaldu dezakeguna: institutuaren helburuetako bat hizkuntzak erakustea (euskara, gaztelania eta ingelesa) eta euskararen erabilera indartzea dira. Baina hizkuntza-aniztasun handia dagoen mundu batean bizi gara eta gure inguruan ere hainbat hizkuntza elkarbizi dira. Ikasten ari zareten hiru hizkuntza horiek ikuspegi horretan kokatzea garrantzitsua da.
- Bikoteka jarriko dira eta bikote bakoitzari 2 postit emango dizkiogu.
- Lehenengo galdera: zenbat hizkuntza hitz egiten dira Euskal Herrian? Postitetan idatzi eta arbelean itsatsiko dituzte. Irakasleak multzokatu egingo ditu: 0-10 artekoak, 10-20 artekoak, 20-30...
- Kinder hizkuntzak ariketa egingo dugu. Bikote bakoitza zerrenda osatzen ahaleginduko da. Hau azalduko diegu: Kinder arrautzetan agertzen diren hizkuntzak dira, azkenekoa ezik guztiak Europako hizkuntzak. Zein da bakoitza?
- Ondoren, guztion artean zerrenda osatzen ahaleginduko gara eta irakasleak emaitzak emango ditu.
- Ariketari buruz hitz egingo dugu: zenbat asmatu dituzte? Ba al zekiten European horrenbeste hizkuntza bazeudenik? Baina ez dira horiek bakarrik, beste hainbeste falta dira: guztira 55 inguru dira. Falta dira euskara, katalana...
- Postiten ariketari helduko diogu berriz ere: Kinder arrautzetan agertzen diren hizkuntza horiek hitz egiten al dira gaur egun Euskal Herrian? Bulgariara, Alemaniera, Errumaniera, Ingelesa...
- Beste postit batean berriz hizkuntza kopuru bat idatzi eta arbelean jarri beharko dute. Kopuruaren arabera multzokatuko ditugu.
- Ondorioa: 104 hizkuntza hitz egiten dira EHn (Unescok 2009an argitaratutako ikerketa). Munduan 6000 hizkuntza baino gehiago hitz egiten dira.

- Lehenengo mezua: gizarte eleanitz batean bizi gara. Gure inguruan hizkuntza asko hitz egiten dira.
- Ondoren, Babelko itsasontziaren dinamika egingo dugu:
  - o Hirukoteak edo laukoteak egingo ditugu.
  - o Talde bakoitza hizkuntza bat izango da: euskara, gaztelania, txinera, ingelesa, suahilia...
  - o Itsasontzi batean doaz eta ondoratzen ari da. Zama handiegia da.
  - o Arintzeko, hizkuntza bat bota behar da itsasontzitik.
  - o Hizkuntza bakoitzak (talde bakoitzak) beste bat aukeratu behar du itsasontzitik botatzeko eta zergatik aukeratzeko duen hizkuntza hori esan behar du.
  - o Bozketa egingo dugu eta argumentuak azalduko dira.
  - o Boto gehien duen hizkuntza mundutik desagertzen da.
  - o Beste 4-5 aldiz egingo dugu ariketa bera eta gero eta hizkuntza gutxiago izango ditugu itsasontzian.
- Ariketarekin amaitzean, atera diren argumentuei buruz hitz egingo dugu: zeintzuk atera dira gehien? Seguruenik: ezezaguna izatea, zaila izatea... Ikusiko dugu argumentuek ez dutela zerikusirik hizkuntzekin beraiekin (aberatsa izatea, hobea izatea...) bestelako egoera batzuekin baizik (guk ez ezagutzea, urruti egotea...).
- Saioaren amaiera: hurrengo saioan gai honekin jarraituko dugula aipatu diegu, eta gonbite bat egingo diegu: etxean dituzten produktu etako azalpen orrietan zein hizkuntza agertzen diren begiratzea (janariak, etxeko tresnak, jokuak...).
- *Oharra: hizkuntza bat kanporatzeko argumentuen artean zailtasunarena egon daiteke (hizkuntza zaila izatea). Hori agertzen bada, oso argi azaldu behar diegu hori ez dela horrela, ez daudela hizkuntza zailak eta errazak: norberaren abiapuntua eta hizkuntza horrekin duen harremanaren arabera errazagoa edo zailagoa izango dela baizik. Hau da, gaztelania duen batentzat errazagoa da kataluniera ikastea euskararen aldean (gertuago duelako) baina Japoniar batentzat bai euskara bai gaztelania oso zailak dira. Era berean, Txinatarra ikasteak oso zaila ematen du, baina hizkuntza hori txikitatik ikasi duten 600 milioi haurrentzat oso erraza izan da.*

## Bigarren saioaren azalpena:

- Gaia kokatzea: Munduan 6000 hizkuntza baino gehiago hitz egiten dira eta Euskal Herrian 100 baino gehiago. Hori ona edo txarra da? Eta horren guztiaren barruan zein leku betetzen du euskarak? Horri buruz aritu nahi dugu gaurko saioan.
- Ona al da hizkuntza-aniztasuna?
  - o Taldetxoak egingo ditugu eta galdera honi erantzun beharko diote: hizkuntza bakarraren alde egongo bagina, zein hizkuntza aukeratuko genuke? Zergatik?
  - o Talde bakoitzak bere aukera egingo du eta talde osoari aurkeztu.
  - o Ez badaude ados, argumentuak oinarri hartuz eztabaida bideratuko dugu.
  - o Ados badaude edota egokia ikusten badugu, hainbat zalantza aurkeztuko dizkiegu:
    - Hizkuntza internazionalena aukeratzen badute, ingelesak beharko luke. Baina ez da munduan erabiliena edo hiztun gehien dituena. Zergatik da hizkuntza internazionalena? Hizkuntza berarengatik edo hizkuntza hori duten herrialdeetako botere politiko-ekonomikoagatik? Hori onartu behar dugu?
    - Hizkuntza erabiliena aukeratzen badute Txinerak beharko luke (Mandarinak). 600 milioi hiztun inguru ditu. Irudikatzen al dugu gure burua eta ingurua Txinera hutsean hizketan?
    - Gaztelania aukeratzen badute: ez da ez erabiliena ezta internazionalena ere. Herrialde askotan da hizkuntza ofiziala baina Arabiera ere 23 herrialdetan da ofiziala.
    - Hizkuntza aberri bat sortzearen aldekoak badira... Nork egin du ahalegina Esperantoa ikasteko?
    - ...
- Ikusten dugu hizkuntza bakarra aukeratzea zaila dela. Eta ziurrenik ez genuke hori nahi. Bide beretik, hizkuntza gutxi batzuk aukeratzea ere oso zaila litzateke. Nola egin aukeraketa? 10 hizkuntza aukeratu beharko bagenu... ados jarriko al ginatke gure artean? Eta ados jarri al daitezke herrialde ezberdinetako pertsonak elkarren artean?
- Aztertu dezagun beste ikuspegi batetik. Zein dira hizkuntza bat baino gehiago jakitearen abantailak?
  - o Taldeka zerrenda bat egitea eskatuko diegu eta azaldu egin beharko dute.



# ebete

- Zerrenda osatu nahi badugu hainbat egoera proposatuko dizkiegu ondoren (eranskinetan agertzen dira).
- Eta euskara jakiteak eta erabiltzeak zer ematen digu? Horri ere erantzun beharko diote.
- Azken mezua emango diegu:
  - Hizkuntza-aniztasuna ona da. Aniztasun hori positiboki bizitzeko gertukoak zaintzetik hasia komeni da: bertako hizkuntzak eta ikasten ari garen hizkuntzak. Horietatik abiatuz beste hizkuntzak ere errespetatu eta gero eta gehiago ikasteko jarrera hartzea da positiboena: adibidez, bidaiatzen dugunean joaten garen lekuetako hizkuntzetako esaldiak eta hitzak ikasiz eta erabiliz.
  - Euskara aniztasun horren parte da, eta laguntzen digu leku batekoak izaten (gure identitatearen parte da). Hori bai, ez ahaztu jakiteak baino erabiltzeak duela garrantzia, eta, gainera, euskara ondo jakiteko erabili egin behar dela.
  - Hurrengo saio batzuetan ere jarraituko dugu gai hauekin.

## Eranskinak:

- Kinder hizkuntzak
- Kinder hizkuntzak emaitzak
- Hizkuntzak jakitearen abantailak (adibideak)

## Hizkuntza

### Gaztelania

KINDER SURPRISE, SORPRESA, SURPRESA, HUEVO CON SORPRESA, ÜBERRASCHUNG, OVERRASKELSE, OVERRASKNING, YLLÄTYS, ЕКТАИЕВ, كيس ممتعة CE  
 FERRERO S.p.A. ALBA - ITALY  
 FERRERO ARDENNES S.A. B-6700 ARLON  
 FERRERO POLSKA S.P.Z.O.O.  
 05-622 BELSK DUZY K.GROJCA, POLAND  
 FERRERO ARGENTINA S.A. LOS CAJADALES, (2814) Pcia. DE BUENOS AIRES

**E. ATENCIÓN, LEA Y GUARDE:** Juguete no apto para menores de 3 años. Las partes pequeñas podrian ser ingeridas o aspiradas.

**P. ATENÇÃO, LEIA E GUARDE:** Brinquedo não apto para menores de 3 anos. As peças pequenas poderiam ser ingeridas ou aspiradas.

**UK. WARNING, READ AND KEEP:** Toy not suitable for children under 3 years. Small parts might be swallowed or inhaled.

**I. ATTENZIONE, LEGGERE E CONSERVARE:** Giocattolo non adatto a minori di 3 anni. Le parti piccole potrebbero essere ingerite o aspirate.

**D. ACHTUNG, LESEN UND AUFBEWAHREN:** Spielzeug ist für Kleinkinder unter 3 Jahren nicht geeignet. Die Kleinteile könnten verschluckt oder eingeatmet werden.

**F. ATTENTION, A LIRE ET A CONSERVER:** Jouet ne convenant pas aux enfants de moins de 3 ans. Les petites pièces pourraient être avalées ou inhalées.

**NL. ATTENTIE, LEZEN EN BEWAAREN:** Speelgoed niet geschikt voor kinderen onder de 3 jaar. De kleine stukjes kunnen ingeslikt of opgesnoeven worden.

**SF. HUOMIO, LUE JA SÄILYTÄ:** Yllätyslelu ei saa antaa alle 3 vuotiaalle. Pienet osat voivat juuttua kurkkuun tai nenään.

**S. OBSERVERA, LÄS OCH BEHÅLL:** Skall inte ges till barn under 3 år. Små delar kan fastna i halsen eller näsan.

**DK. BEMÆRK, LÆS OG OPBEVAR:** Må ikke gives til børn under 3 år. Smådele kan sætte sig fast i hals eller næse.

**GR. ΠΡΟΣΟΧΗ, ΝΑ ΔΙΑΒΑΣΕΤΕ ΚΑΙ ΝΑ ΦΥΛΑΞΕΤΕ:** Δεν είναι κατάλληλο για παιδιά κάτω των 3 ετών. Περιχει μικρά κομμάτια που μπορεί να καταπούν ή να εισπνευσούν.

**N. N.B.! LES OG BEHOLD:** Må ikke ges til barn under 3 år. Små deler kan sette seg fast i halsen eller nesen.

**PL. UWAGA, PRZECZYTAJ I ZACHOWAJ:** Zabawka nie nadaje się dla dzieci poniżej 3 lat. Małe części mogą zostać połknięte lub wchłonięte.

**РУССКИЙ. ВНИМАНИЕ ПРОЧИТЕ И СОХРАНИТЕ:** Игрушку не давать детям младше 3-х лет во избежание попадания мелких частей в рот или дыхательные пути.

**UA. УВАГА, ПРОЧИТАЙТЕ ТА ЗБЕРЕЖІТЬ:** іграшка не призначена дітям віком до 3 років. Діти можуть проковтнути чи вдихнути маленькі деталі.

**CZ. POZOR, ČTĚTE A USCHOVEJTE:** Hračka není vhodná pro děti do 3 let. Mohly by spolknout nebo vdechnout malé části.

**BG. ВНИМАНИЕ, МОЛЯ ЗАПОМНЕТЕ:** Игрчката не е подходяща за деца под 3 години, тъй като те биха могли да глътнат или вдихнат малките парченца.

**H. FIGYELEM, OLVASSA EL ÉS ORIZZE MEG:** A játék nem adható 3 éven aluli gyermekeknek, mert lenyelhetik vagy beszippantathák a kis részeket.

**HR. POZOR, PROČITATI I SAČUVATI:** Igračka neprikladna za djecu mlađu od 3 godine, jer bi mogla progutati ili udahnuti sitne dijelove.

**TR. DIKKAT, OKUYUN VE SAKLAYIN:** Bu oyuncak 3 yaşın altındaki çocuklara uygun değildir. Küçük parçalar yutulabilir veya nefes borusuna kaçabilir.

**SK. POZOR, PREČITAT A ODLOŽIT:** Hračka nie je vhodná pre deti do 3 rokov. Drobné časti by mohli prehltnúť alebo vdychnúť.

**SLO. POZOR, PREBERITE IN SHRANITE:** Igračka ni primerna za otroke mlajše od treh let, ker bi lahko vdihnili ali pogoltnili drobne sestavne dele.

**RO. ATENȚIE, DE CITI ȘI RETINUT:** Nu lăsați jucăria la îndemâna copiilor sub 3 ani. Părțile mici pot fi înghițite sau inhalate.

**MK. ВНИМАНИЕ, ПРОЧИТАЈ И ЗАЧУВАЈ:** Игрчката е несоодветна за деца помали од 3 години, зашто можат да ја голтнат или да ги вдихнат нејзините ситни делови.

**MD. ATENȚIE, CITIȚI ȘI PĂSTRĂȚI:** Jucăria nu se recomandă copiilor până la vârsta de 3 ani. Pentru copiii mici există pericolul de a înghiți jucăria care pot nimeri în organele de respirație sau respiratoare.

**YU. ПАЖЉИВО ПРОЧИТАТИ И САЧУВАТИ:** Игрчку не давати деци млађој од 3 године да не би прогутала или удихнула ситне комадиће.

**LV. UZMANĪBU, IZLASIET UN SAGLABĀJĪET:** Rotālietu vēlams nedot bērniem jaunākiem par 3 gadiem, jo pastāv iespēja, ka rotālijetas sīkās detaļas var iekļūt elpošanas ceļos.

**LT. DĖMESIO! PERSKAITYK IR SAUGOK:** Zaisliukas netinka jaunesniems nei 3 metų vaikams: mažas detales gali praryti arba įkvėpti.

**EST. TÄHELEPANU! LOE LÄBI JA HOIA ALLES:** Mitte anda väikseid mänguasju alla 3-aastastele lastele: need võivad sattuda lastele suhu või hingamisteedesse ja põhjustada õnnetuse.

العربية - افراً واحظ :

لعبة غير مناسبة للاطفال الذين يقل سنهم عن ٣ سنوات لأنه يمكن ابتلاع أو استنشاق الأجزاء الصغيرة

<b>ERANTZUNAK</b>	E: gaztelania P: portugesa UK: ingelesa I: italiera D: alemanera F: frantsesa NL: nederlandera SF: suomiera S: suediera DK: daniera	GR: grekoa N: norvegiera PL: poloniera PYCCKNN: errusiera UA: ucraniera CZ: txekiera BG: bulgariera H: hungariera HR: kroaziera TR: turkiera	SK: eslovakiera SLO: esloveniera RO: errumaniera MK: mazedoniera MD: moldaviera YU: serbiera LV: letoniera LT: lituaniera EST: estoniera ___: arabiera
-------------------	--	---	---

## Hizkuntza bat baino gehiago jakitearen abantailak (egoerak)

*(gehiago landu behar da, baina abiapuntu moduan balio dezake)*

Ikuspegi gehiago–aberastasun kulturala:

- Bi Gasteiztar. Batek euskara daki eta besteak ez. Batek ulertzen du euskara eta beraz ulertzen du euskaraz egiten den kultura: musika, liburuak, egunkariak, telebista... Besteak ez. Baina euskara dakienak gaztelaniazko mundua ere ezagutzen du: musika... Hizkuntza bat baino gehiago jakiteak ikuspegi gehiago ematen dizkigu.

Gertutasuna sortzen du:

- Niretzat gertukoak diren hizkuntzak eta kulturak dakizkien beste norbaitekin nagoenean, gertutasuna sortzea errazagoa da. Adibidez: Rok musikaren oso zalea naiz. Beste zale batzuekin gertuko harremana sortzea errazagoa da rok musika gustatzen ez zaienekin baino. Hizkuntzak ere laguntzen du horretan: dakitenekin gertutasuna sortzea errazagoa da nire kultura eta bizimodua gertu dituen norbait delako.

Integratzen laguntzen du:

- Hemendik kanpo zoaz lanera. Adibidez, Alemaniara. Alemaniera jakiteak lana aurkitzen lagunduko dizu... baina lagunduko al dizu bertakoekin harremanetan jartzen?
- Urte gutxitan kanpotik jende asko etorri da Euskal Herrira, munduko hainbat lekutatik... Gaztelania guztiek ikasten dute, baina euskara ikasteak balio al du zerbaitetarako? Nola hartzen dugu guk kanpotar bat euskara egiten ahalegintzen dela konturatzean? Sortzen al du gertutasuna?

Beste batzuk

- Bidaiatzeko
- Hizkuntza gehiago ikasteko erraztasuna
- Mundua ikusteko moduak
- ...

# *Eleaniztasuna eta gertukoa zaintzea*

Institutuko ikasleekin motibazioa lantzeko  
proiektua

3/12 modulua

## **Kokatzea**

DBH3koekin lehenengo hiru hilekoan egiteko modulua da.

Eleaniztasunaren aldeko mezu bat eman nahi da eta hori norberaren  
hizkuntzak zaintzearen garrantziarekin ere lotu nahi da.

*Eizmendi Arsuaga, Iñaki  
ebete hizkuntza-zerbitzuak*

## Lehenengo saioa:

- Gizartea eleanitza da:
  - o Zenbat hizkuntzetako zerrenda egin dezakegu institutuan? Hau da: institutuko ikasleek dakizkiten hizkuntzen zerrenda egingo bagenu, zenbat izango lirateke? Zerrenda egin eta arbelean itsatsiko dugu.
  - o Hizkuntza horiek guztiak dakizkien pertsona bat ezagutuko bagenu zer esango genuke? Nola baloratuko genuke? Zer emango lioke (abantailak) hizkuntza horiek denak jakiteak?
  - o Horri buruz hitz egingo dugu eta mezu bat emango diegu: hizkuntza asko jakitea aberasgarria da eta aukera asko ematen dizkigu. Gutako bakoitza hizkuntza bat baino gehiago ikasten ari da eta hori ona da. Gainera, denon artean hizkuntza asko dakizkigula ere esan dezakegu! Horretan (ere) beste institutu batzuk baino askoz aberatsagoak gara.
  
- Norberarena zaintzea ezinbestekoa da
  - o Galdera bat egingo diegu eta eztabaida sortzen saiatuko gara: zer da hobia, hizkuntza bat ondo jakitea edo hizkuntza batzuk jakitea baina ez maila oso altuan (hau da, hitz egiteko gai zara, baina kosta egiten zaizu idaztea, elkarrizketa luzeka mantentzea, ideietan sakontzea...).
  - o Zein dira bakoitzaren alde onak eta txarrak?
  - o Azalpen bat eta mezu bat emango dizkiegu: hizkuntza bat baino gehiago ondo ikasi ditzakegu eta erraztasuna izan horietan guztietan. Horretarako hiru gauza behintzat hartu behar ditugu kontuan:
    - Erabilera: ondo ikasi nahi dugun hizkuntza bakoitza asko erabili behar dugu. Erabilerak ikasten lagunduko digu, barneratzen ere bai eta noski, baita erraztasuna hartzen ere.
    - Interesa: ikasten ari garen hizkuntzak hobetzeko interesa edukitzea.
    - Etxeko hizkuntza zaintzea: hizkuntza batek besteari laguntzen dio. Zenbat eta baliabide gehiago izan gure lehenengo hizkuntzan, beste hizkuntzetan maila on bat lortzea errazagoa. Beraz, zaindu eta mimatu lehenengo hizkuntza (ez zaigu axola zein den).

## Bigarren saioa:

- Euskara ere beraiena al da?
  - o 0tik 10era zenbaki bat aukeratu behar dute.
  - o 0 = ez dut harremanik. 10 = nire hizkuntza nagusia da.
  - o Tartean daude: badut harremana, hizkuntza horretan ikasten dut, gustatzen zait-ez zait gustatzen, asko ez dakit baina badut interesa... Norberak baloratu behar du bere moduan.
  - o Non jarriko lukete gaztelania? Ingelesa? Euskara? Besteren bat?
  - o Gelako batz bestekoa egingo bagenu? Non dago bakoitza?
  - o Horri buruz hitz egingo dugu: zergatik jarri duzue gaztelania...? Eta euskara? Eta ingelesa? Saiatuko gara galdeak egiten: euskara oso baxu jarri badute horren inguruan, guk uste baino altuago jarri badute horren inguruan... seguruneik gauza positiboak eta negatiboak aterako dira. Ikusi nahi dugu hizkuntzekin nolako harremana duten.
  - o Azken mezua emango diegu: hizkuntza horiek guztiak zuenak dira. Modu ezberdinetan bizi dituzue baina zuenak dira.
  
- Euskararekin beste harreman bat nahi al lukete?
  - o Gustatuko al litzaizueke guztiak 10etik gertu egotea? Edo gutxienez guztiak batez ere gauza positibo eta indartsuekin lotzea?
  - o Adibidez, euskararen kasuan, hainbat gauza negatibo eta beste batzuk positiboak agertu dira. Posible ikusten duzue positiboen zerrenda handitzea? Guk proposamenak egiten badizkizuegu, eta zuentzat errazak eta agian dibertituak badira, prest al zaudete frogatzeko? Lortuko al dugu euskara zenbaki batetik bestera eramatea?
  - o *(Denbora ematen badu ideien ekaitza ere egin daiteke: zer egin dezakegu institutuan euskararen erabilera indartzeko eta euskaraz ondo pasatzeko?)*



# Euskararen erretratua

Institutuko ikasleekin motibazioa lantzeko  
proiektua

4/12 modulua

## Kokatzea

DBH4koekin lehen hiru hilekoan egiteko modulua da.

Euskarari buruz duten irudia ikusi nahi da eta aurreiritzi batzuk hautsi.

*Eizmendi Arsuaga, Iñaki  
ebete hizkuntza-zerbitzuak*



## Helburua:

Euskarari buruz duten irudia ikusi nahi dugu eta aurreiritzi batzuk hautsi nahi ditugu.

## Lehenengo saioa: adjektiboak.

- Binaka edo talde txikietan banatuko ditugu.
- Azalduko diegu euskarari buruz hitz egin nahi dugula: institutuan euskara lantzen dugula, ondo ikastea nahiko genukeela, batzuen aldetik jarrera onak ikusten ditugula baina kezka ere badugula iruditzen zaigulako euskarari buruz duten irudia hainbat kasutan ez dela oso ona... Horri buruz hitz egin eta hausnartu nahi dugu.
- Hamar hitz jarriko dizkiegu zerrenda batean: modernoa, indartsua, zaila, itsusia, etorkizunekoa, goxoa, zatarra, inposatua, atsegina, polita.
- Bost hizkuntza jarriko dizkiegu: euskara, gaztelania, ingelesa, txinera eta katalana.
- Bakoitzari adjektibo positibo bat eta negatibo bat jarri behar dizkiote. Hitz bat gutxienez zerrendatik hartu behar dute eta bestea nahi badute beraiek aukeratu. Aukeratzerakoan ezin dute errepikatu hitz hori hizkuntza ezberdinentzat.
- Talde bakoitzak bere zerrenda egingo du.
- Arbelean talde bakoitzak aipatzen dituenak idatziko ditugu.
- Ondoren, adjektibo horiek jarraituz hizkuntza bakoitza definituko dugu. Ados daude? Ez daude ados? Definizio orokorregiak dira? Ondo definitzen du hizkuntza hori? Kontraesanik ikusten al da?
- Mezu bat emango diegu: ez da erraza hizkuntza definitzea. Bakoitzak hizkuntza horrekin duen harremanak erabat aldatzen du ikuspegia.

## Bigarren saioa: euskararekin harremana definitzen.

- Euskarari buruz atera diren adjektiboak hartuko ditugu.
- Egokiak dira? Zein dira positiboak? Zein negatiboak?
- Saiatuko gara ematen dituzten iritzien inguruan eztabaidak sortzen, bai positiboetan baita negatiboetan ere.
  - o Polita bada: arbelean belarrira gogorak egiten diren hitz pare bat jarri. Horiek politikak al dira?
  - o Zaila bada: Txineraren kasuan ere ez al dute jarri zaila dela? Txinera ikasi duten 1000 milioi hiztunak oso azkarrak al dira ba? Edo guri iruditzen zaigu zaila? Ez daude hizkuntza erraza edo zailak, abiapuntua eta erabilera dira klabea.

# ebete

- Txikia bada: Datu batzuk eman. Munduan 6000 hizkuntza hitz egiten badira... Adb: Kike Amonarrizen blogean agertzen dena hiztun kopuruari buruz, Google–Twiter–Facebookeko hizkuntza izatea (eta ez dira hainbeste)... Beraz: inguruko hizkuntza batzuk baino askoz txikiagoa da, baina ikuspegi orokor batetik ez da batere txikia.
- ...
- Azken ondorioak: euskararen erretratu bat egiten ahaleginduko gara eta idatzita utziko dugu kartulina batean. Definitzerakoan aipatu ditugun alde on eta txarrekin baina zalantzak edo eztabaidetako ondorioak ere txertatuz. Gutxi gora behera adosten saiatuko gara. *Zer da euskara guretzat? Ikasten ari garen hizkuntzetako bat, polita, nahiz eta ezin esan beti polita denik, zaila, nahiz eta badakigun zailtasuna ez duela hizkuntzak hiztunak baizik, inguruko hizkuntzekin alderatuz txikia den arren gaur egun internet eta medioetan...*
- *Oharra; azken definiatz egitea zaila bada, nahikoa da ideia nagusien ondorioak aipatzea.*

# Institurako erronka

Institutuko ikasleekin motibazioa lantzeko  
proiektua

5/12 modulua

## Kokatzea

DBH1koekin bigarren hiru hilekoan egiteko modulua da. Erabileraren gaiarekin jarraitu nahi dugu:

Euskaraz gehiago egiteko gai direla ohartzea nahi dugu, eta, ahalegin horretan ondo pasa dezaketela eta beraiekin burua gustura ikusi.

*Eizmendi Arsuaga, Iñaki*  
*ebete hizkuntza-zerbitzuak*  
*2013-2014 ikasturtea*

## Helburuak:

- Institutuko euskararen erabileraren inguruan hausnartzea
- Erronka bat proposatzea
- Ohiturei buruz eta ohiturak indartzeari/aldatzeari buruz hitz egiten hastea.

## Lehenengo saioaren azalpena:

- Euskararen erabileraren inguruan hausnartzen jarraitu nahi dugula esango diegu. Dinamika batekin hasiko gara horretarako: postitak.
- Galderak egingo dizkiegu eta postit handietan idatzi behar dituzte erantzunak eta arbelean itsatsiko dituzte.
- Lehenengo bi galderak beroketa moduan erabiliko ditugu: Zein da gustukoena duzuen kolorea? Nora joan nahiko zenukete hurrengo oporretan?
- Hurrengo hiru galderak (bi nahikoa izan daitezke) erabilera buruzkoak izango dira: Zer sentitzen duzue irakasleek *egin euskaraz* moduko zerbait esaten dizuetenean? Zer sentitzen dute irakasleek zuei hori esateko? Irakasleek erdaraz egingo balute eta zuek bazinete haiek euskaraz egitea nahiko zenuketenak, zer sentituko zenukete ez duzuela lortzen ikustean? (*galderak ondo pentsatu behar dira, beraiek euskara gehiago erabili nahi luketela onartzea bilatzen dugu, gero aurrera pausoak proposatu ahal izateko*).
- Arbelean euskararen inguruan jarri ditugun postitak irakurriko ditugu eta horiei buruz hitz egingo dugu. Gutxi gora behera ondorio honetara iritsi nahi dugu: euskara gehiago erabili nahi lukete baina ez dute nahi irakasle bat ondotik euskaraz egiteko eskatzen ibiltzea. Badakigu, beraiek nahi badute, euskara gehiago erabiltzeko gai direla guk ezer esan gabe ere. Jolas bat proposatuko diegu astebeterako.

## Erronka:

- *Konplizeak eta espiak* jolasa proposatuko diegu (eranskinean agertzen da azalpen).

## Bigarren saioaren azalpena:

- Jolasari buruz hitz egingo dugu: zer moduz aritu dira? Lortu al dute helburua? Konplizeak eta espiak ondo aritu al dira? Erraza izan al da beraientzat? Nola ikusi dute beraien burua?...
- Horrekin batera, hainbat ondorio ere aterako ditugu eta horiei buruz hitz egingo dugu: gai al dira beraien kabuz euskara gehiago erabiltzeko? Ondo sentitu dira euskaraz gehiago egiteko ahalegin horretan? Gustatu al zaizue norbaitek atentzioa deitzea edo norbaitek zoriontzea? Non dituzte zailtasunak? Noiz kostatzen zaie euskara mantentzea? Jarraitzeko eta hausnartzeko prest?
- Jolasarekin ez dugula jarraituko aipatuko diegu, baina jolaseko jarrera mantentzea asko eskertuko genukeela. Aurrerago gaian gehiago ere sakonduko dugula eta erronka eta jolas gehiago ere izango dituztela.

## Prestatu beharrekoak:

- Lehenengo saioan egin beharreko galderak ondo pentsatu behar dira.

## Eranskinak:

### **Konplizea eta espiak jolasa**

Astebeteko erronka proposatzen diegu. Aste horretan institutuan beraien artean euskara asko erabiltzen ahalegindu behar dute.

Irakasleak ez dira ibiliko *egin euskaraz* moduko esaldiak erabiltzen, baina ikaskideen artean laguntzea izango da jolasaren oinarrietako bat.

Ikasle bakoitzari 10 txartel emango dizkiogu. Jolas egiten ari garen epean denbora guztian eraman behar dituzte.

Gela bakoitzean egunero konplize bat eta espia bat aukeratuko ditugu. Bi ere izan daitezke. Zozketaz izan daiteke, boluntarioak izan daitezke...

Espia: Zelatatzen dabilena da. Erdaraz hizketan harrapatu nahi zaitu. Espiak egunean gutxienez 4 aldiz lanean ari dela abisatu behar du (*Hemen*

# ebete

*dabil espia! Adi!! Hemen dabil espia!!*). Hurrengo 10 minutuetan kideak gaztelaniaz harrapatu nahi dit. Zelatatzen ibiliko da. Norbait gaztelaniaz entzuten badu, hurbildu eta hauxe esango dio: *txartel bat, mesedez*. Txartela hartu eta gordeko du.

Konplizea: Lagundu nahi zaituena da. Euskaraz hitz egin dezazun nahi du. Egunean zehar, tarteka, erdaraz ari den norbaitengana hurbilduko da eta esango dio: *tori, goxoki hau zuretzat, merezi ote duzu?* Goxokia emango dio. Ondoren, honek saiatu beharko du hurrengo 10–15 minututan euskaraz egiten. *(Nahi izanez gero eguneko goxoki kopurua mugatu dezakegu: 20 goxoki, adibidez)*.

Aste osoan zehar jolasa egingo dugu.

# *Ohitura aldaketak*

Institutuko ikasleekin motibazioa lantzeko  
proiektua

6/12 modulua

## **Kokatzea**

DBH2koekin bigarren hiru hilekoan egiteko modulua da. Erabileraren gaiarekin jarraitu nahi dugu:

Ohiturak aldatzea ez da erraza, baina nahi izanez gero aldatzea horren zaila ere ez dela ikustea nahi dugu. Ohituren inguruan jolastera gonbidatuko ditugu eta horri buruz hausnartuko dugu.

Gure ikasleetako hainbatek euskara gehiago erabiltzeko gogoazazaltzen dute edo borondate hori izan dezaketela iruditzen zaigu. Gehienek gaztelaniara jotzen dute lagunarteko harremanetan ere. Horri buruz hitz egiten hasi ezker, arrazoietako bat ohiturak izango dira: gaztelaniaz egiteko ohitura dugu. Baina ohiturak aldatu ere egin daitezke. Horren inguruan kokatuko ditugu jarreretan eragiteko dinamika hauek.

*Eizmendi Arsuaga, Iñaki*  
*ebete hizkuntza-zerbitzuak*  
*2013-2014 ikasturtea*

## Helburuak:

Ikasleen euskararen erabileran eragitera begira:

- Ohiturak aldatzea erraza ez den arren (gaztelaniaz egiteko ohiturak), nahi izanez gero aldatu daitezkeela ikustea.
- Lagunartean euskara gehiago erabili dezaten proposamen zehatzak egitea.

## Lehenengo saioaren azalpena:

- Aurreko saioetako ondorioak gogoraraziz hasiko gara: datuak, egindako frogak, beraiek aipatutako lorpenak eta zailtasunak...
- Zailtasun bat ohituretan agertuko da: hainbatekin eta hainbat egoeretan gaztelaniaz egiteko ohitura dugu.
- Horri buruz hitz egingo dugu: Eta ohitura aldatu nahiko bagenu? Erraza edo zaila da?
- Ondoren, azalduko diegu bi dinamika/jolas proposatuko dizkiegula. Batek hizkuntzarekin zerikusia du eta besteak ez.
- Hizkuntzarekin zerikusia ez duen dinamikarekin hasiko gara: Zein dira egunero institutuan dituzten ohiturak? Egunero errepikatzen direnak? Adibidez: gelara sartu eta motxila lurrean uztea, aulkiak mahaitik jaistea... Zerrenda bat osatuko dugu beraiekin.
- Ohitura horiek aldatze proposatuko diegu: Zein izan daiteke ekintza hori egiteko beste modu bat? Adibidez: Kiroleko poltsa aldageletako aulkietan uzten dugu, gimnasioko leku jakin batean biltzen gara...
- Proposamena: Bi-hiru ohitura hartu eta beste era batera egin behar dugu astebetean. Denon artean adostuko ditugu aldaketa horiek.
- Aste beteko epean ohitura berriekin aritu beharko dute.
- Oharrak:
  - o Seguruenik hasieran lagundu beharko diegu ohituren zerrenda egiten eta ohitura horiek nola aldatu daitezkeen ikusten. Hori bai, dinamika ulertzen dutenean s ekarpen asko egingo dituzte.
  - o Ohitura aldaketak ez du esan nahi zerbait hobetu behar dugunik, helburua aldaketekin jolastea da. Beraz, erabat aldaketa absurdoa izan daiteke. Adibidez: Etxera iritsi eta txirrina jo aurretik batetik hogeira kontatzea ingelesez.
  - o Froga egiten ari diren astean zehar, tarteka zer moduz ari diren galdetuko diegu, gaiaren jarraipena egiten ari garela ikusi dezaten eta guk ikusi dezagun gogoz ari diren edo ez.



## Bigarren saioaren azalpena:

- Ohitura aldaketen inguruan egindako frogari buruz hitz egingo dugu: adostutako ohitura aldaketak bete al dituzte? Erraza egin al zaie? Zaila egin al zaie? Hasieran askotan pentsatuta egin beharreko hori gero errazago egin al dute?...
- Ondoren hizkuntza ohiturei buruz hitz egingo dugu: gai ote gara hizkuntzarekin horrelako saiakera bat egiteko? Jolas moduan bada ere?
- Proposamena: Helburu bat adostu beraiekin eta astebetean ahalegindu behar dute ohitura berriekin aritzen.
- Borondatezkoa izango da: nor dago prest erronkan parte hartzeko? (argi azalduko diegu ez dugula inor epaituko: nahi dugun gauza bakarra da beraiek frogatzea ohitura aldaketak errazak diren edo ez).
- Lagungarria baldin bada, eranskinetako bi fitxa erabiliko ditugu: Norekin egiten dut euskaraz? + Aste beterako erronka. Baina soilik beharrezkoa ikusten badugu erabiliko ditugu.
- Astebeteko epean adostutako betetzen ahalegindu behar dute
- Jarraipena egingo diegu,errefortzu positiboak emango dizkiegu...

## Hirugarren saioaren azalpena:

- Egindako froga ebaluatuko dugu: Zer moduz aritu gara? Erraza izan al da? Nola ikusi du bakoitzak bere burua?
- Gure balorazioa egingo diegu, errefortzu positiboak ematen ahaleginduz: baloratzen dugula jarrera eta ahalegina, bidea hori dela...
- Aurrerantzean ere norabide berean jarraitzea proposatuko diegu, eta guk nola jokatu dugun azalduko diegu: animatuko ditugu, atentzioa deituko diegu, dinamika gehiago proposatuko dizkiegu...

**Norekin egiten dut euskaraz?**

A- Guztia euskara    B- Gehiena euskaraz    C- Gehiena gaztelaniaz    D- Guztia gaztelaniaz

**Ikaskideekin eta lagunartean**

	Nor da?	Zenbat euskara erabiltzen duzu?		
		Gelan	Ikastetxean	Ikastetxetik kanpo
Harreman handia duzun lagun bat				
Harreman handia duzuen beste lagun bat				
Harreman handia duzun hirugarren lagun bat				
Ikasgelan zure ezkerretan esertzen dena				
Ikasgelan zure eskuinetan esertzen dena				
Jangelan zure aurrean jartzen dena				
Jangelan zure ezkerretan esertzen dena				

**Familian**

	Zenbat euskara erabiltzen duzu?
Gurasoekin	
Anai-arrebekin	
Aitona-amonekin	
...	

## ASTEBETE BATERAKO ERRONKA

### Erronka baterako prest?

- Norekin egiten dut euskaraz? fitxatik guztia euskaraz egiten ez duzun bi pertsona aukeratu.
- Egoera bat aukeratu: Gelan, ikastetxean edo ikastetxetik kanpo.
- Hurrengo urratsera iristen saiatu behar duzu astebete horretan zehar:
  - o D den kasuetan, C izatea.
  - o C den kasuetan, B izatea.
  - o B den kasuetan, A izatea.
- Frogatzeko prest?

### Zein pertsona, egoera eta helburu aukeratu dituzu?

1-

2-

## *Elkarrizketak sortzen*

Institutuko ikasleekin motibazioa lantzeko  
proiektua

7/12 modulua

### *Kokatzea*

DBH3koekin bigarren hiru hilekoan egiteko dinamikak dira.

Oarsoaldean gero eta euskaldun gehiago bizi dira, baina kaleko euskararen erabileran ez da hori nabarmen ikusten.

Horri buruz hausnartu nahi dugu ikasleekin. Batez ere ikustea nahi dugu erabilerak gora egiteko bidea euskaldunak hainbat egoeretan euskara erabiltzea dela: hainbat harreman euskaraz sortzen ahalegintzea, alegia. Horretarako zailtasunak zein diren ere aztertu nahi ditugu.

*Eizmendi Arsuaga, Iñaki*  
*ebete hizkuntza-zerbitzuak*  
*2013-2014 ikasturtea*

## Helburuak:

- Oarsoaldean hainbat egoeretan eta hainbat pertsonekin euskaraz aritu daitezkeela ikustea.
- Harreman gehienak gaztelaniaz sortzearen arrazoiak aztertzea.

## Lehengo saioaren azalpena:

- Aurreko saioetako datuak eta ondorioak hartuko ditugu abiapuntu moduan: erabilera eta ezagutza datuak, egindako erronka edo jolasen ondorioak...
- Ondoren, ikasleek dituzten ohituren inguruan hitz egingo dugu: institututik kanpo ba al dakigu norekin egin dezakegun euskaraz eta norekin ez? Saiatu izan al gara elkarrizketak euskaraz sortzen? Noiz? Norekin? Ez dakigunean elkarrizketa euskaraz izan daitekeen edo ez, nola egiten dugu? Zergatik?...
- Ondoren, jolas bat proposatuko diegu: astebeteko epean, lortu behar dute ohikoak diren egoeretan elkarrizketaren bat euskaraz sortzea.
- Non ibiltzen dira? Zerrenda bat egingo dugu arbelean: kiroldegian, kultur etxean, dendetan... Norekin sortu ditzakete elkarrizketak egoera horietan?
- Proposamena: egoera horietan elkarrizketak euskaraz sortzen ahalegintzea.
- Aste beteko epean froga egin behar dute.
- Oharrak:
  - o Egunero gogorarazi behar zaie froga. Giroa mantendu behar dugu.
  - o Seguruena hainbatek ez dute frogatuko, baina batzuk frogatzea nahikoa da. Guztiei egingo diegu gonbitea baina jakinda guztiek ez dutela frogatuko.
  - o Froga egiten dutenen bizipenak interesatzen zaizkigu.

## Bigarren saioaren azalpena:

- Frogaren inguruan galdetuko diegu: Nork egin du froga? Zein egoeretan? Lehen gaztelaniaz ziren egoeretan euskarazko elkarrizketak sortzeko gai izan al dira? Uste baino elkarrizketa gehiago euskaraz izan al daitezke? Non ez dute lortu? Nola ikusi dute beraien burua? Eroso sentitu al dira? ...
- Helburua da beraien ikustea euskaraz izan daitezkeen hainbat harreman gaztelaniaz sortzen dela: euskaldunok euskaraz hasteko ahalegina egingo bagenu hainbat harreman euskaraz sortuko lirakeela.
- Baina, bestalde, ikustea nahi dugu guk ere ulertzen dugula hori ez dela horren erraza: zailtasunak aztertu, zalantzak, beldurrak...
- Ondoren, gonbitea egingo diegu berriz ere horrelako saiakera eta frogak egin ditzaten. Aurrerago gaiari ere berriz heldu nahi geniokeela ere esango diegu, batez ere beraien tresnak eskaintzera begira: eroso sentitzeko hainbat egoeretan, adibidez.

# *Nolakoia izan nahi dut?*

Institutuko ikasleekin motibazioa lantzeko  
proiektua

8/12 modulua

## *Kokatzea*

DBH4koekin bigarren hiru hilekoan egiteko modulua da.

Euskaldun izateari buruz eta euskaldun izateak dituen ezaugarriei buruz hitz egingo da saioetan zehar: zerk bereziten gaituen, zertan garen berdinak, nolakoak izan nahi genukeen...

Oinarrizko ideia honakoa da: euskara jakiteak eta erabiltzeak ezaugarri batzuk ematen dizkigu mundu globalizatuan, euskaraz egiten den (egiten duen) guztia euskaldun bihurtzen da.

Oinarrizko ideia horretara iritsi nahi da eta ikasleak gonbidatu nahi ditugu ideia horrekin bat egiten badute norabide horretan bidea egitera: "nolako euskalduna izan nahi dut?" galdera erantzutera gonbidatuko ditugu, eta, are gehiago, "merezi al du norabide horretan aritzeak?" galderari ere erantzun beharko diote.

*Eizmendi Arsuaga, Iñaki*  
*ebete hizkuntza-zerbitzuak*  
*2013-2014 ikasturtea*

## Helburuak:

- Euskaldunon (eta norberaren) identitatearen inguruan hausnartzea. Munduan (eta Euskal Herrian bertan) hainbat kultura baldin badaude, zein da gurea (nirea)? Zein ezaugarri ditu? Nolako izatea nahi nuke?
- Euskaldunon ezaugarriez aritu bagara, eta gure aldetik nolakoak izan nahi genukeen zehaztu badugu... Merezki al du horretan ahalegintzeak? Horretaz hausnartuko dugu ikasleekin.

## Lehengo saioaren azalpena:

Hiru dinamika egingo ditugu saioan zehar:

- *Nongoak gara?* dinamikarekin besteengandik zerk bereziten gaituen eta zertan garan berdinak ikusi nahi da.
- *Nongoa izan nahi dut?* dinamikarekin leku batekoa izan zein bestekoa izan axola ote zaigun aztertzeko dinamika izango da.
- *Nolako izan nahi dut?* Abiapuntutzat hartuz euskalduna izan nahi dudala (agian guztien kasuan ez da horrela izango), nolako izan nahi genuke? Zein ezaugarri behar lituzke?

## **Nongoak gara?**

- Leku batekoa izatea edo bestekoa izatea axola zaigun ikusi nahi dugu, eta zerk bereizten gaituen aztertu.
- Taldetxotan banatuko ditugu eta talde bakoitza herrialde batean kokatuko dugu: Euskaldunak, Japoniarrak, Estatu Batuarrak, Australiarrak, Nigeriarrak...
- Globalizazioaren ondorioz hainbat elementu komunak dira kultura guztientzat (edo ia). Horri buruz aritu nahi dugu. Taldetxo bakoitzari galdetegi bat pasako diogu (*hurrengo orrian agertzen da galdetegi zehatza*), galdetegi horretan denentzat nahiko komunak izan daitezkeen elementu batzuk jarriko ditugu (musikarekin, kirolarekin, telebistarekin eta abar zerikusia dutenak):



- Zure kulturaren edo bizimoduan ba al duzu zerikusirik ondoko gauza hauekin? Olinpiadak - Munduko futbol txapelketa - Madona - Mozart-Operación triunfo- You tube- Facebook - Ferrari ....
- Taldetxo bakoitzak zer jarri duen ikusiko dugu, eta horretaz hitz egingo dugu.
- Ondoren galdera izango da: Eta zer da ezberdina bakoitzean? Zer dute Japoniarrek, Euskaldunek, Estatu Batuarrek... elkarrengandik ezberdina?
- Seguruenik, aterako den gauzetako bat folkloarearekin lotutakoa izango da (dantza, herri musika...). Hori zalantzan ere jarri dezakegu: Horrek bereizten gaitu, baina benetan zein garrantzia dute nire bizitzan? Ez badira oso garrantzitsuak. zer inporta zait leku batekoa zein bestekoa izatea?
- Horretaz hitz egingo dugu. Ez dugu ondorio garbietara iritsi behar, hausnartzea lortu nahi da.

## Nongoa izan nahi dut?

*Nongoak gara?* dinamikaren jarraipen da. Elementu komun asko ditugunez, berdin al zait Estatu Batuarra, zein Japoniarra, zein Euskal Herritarra izan? Horri buruz hitz egingo dugu. Sentimenduez eta intuizioez aritzeko ere eskatuko diegu, ez soilik arrazoiez.

## Nolakoa izan nahi dut?

Abiapuntu moduan hartuko dugu euskaldunak izan nahi dugula (seguruenik *Nongoa izan nahi dut?* dinamikak horretara eramango gaitu).

Taldeka banatuko ditugu berriz ere, eta galdera honi erantzun beharko diote:

- Euskalduna izan nahi badut, nolakoa izan nahi dut? (*eranskinetako fitxa banatu dezakegu lagungarri izango zaiela iruditzen bazaigu*).
- Hamar minutu izango dituzte galdera hori erantzuteko. Ondoren, taldean komentatuko ditugu bakoitzak jarritakoak.
- Definizio ezberdinak hartuko ditugu eztabaida sortzeko eta jarraitzeko abiapuntu moduan. Helburua ez da norberak bere burua erabat definitzea, identitateaz hausnartzea baizik.

## Bigarren saioren azalpena:

- Lehenengo saioko ideia nagusienak eta ondorioak gogoraraziko dizkiegu: euskararekin harremana, gehiago erabiltzea dela hori aldatzeko modu bakarra...
- Ondoren, bideo bat jarriko diegu: *You Tubeko Guk ere euskaraz 03*. Bertan, esketx batean, euskara eskolarekin soilik lotzen duen gazte bat agertzen da. Beraiek nola bizi dute? Normala iruditzen al zaie egoera hori? Ba al dakite badirela haur/gazteak hori horrela bizi dutenak? Ikusten/entzuten/erabiltzen al dute euskara eskolatik kanpo? Zer iruditzen zaie? (*Bideo hau gaia kokatzeko lagungarria da baina batez ere bigarren bideoa interesatzen zaigu*)
- Ondoren beste bideo bat jarriko diegu: *You Tubeko Guk ere euskaraz 01*. Bertan, gazte talde batek euskara gehiago erabiltzea erabakitzen du. Nola ikusten dute? Gazte horiek lortuko al dute nahi baldin badute euskara gehiago erabiltzea? Non izan ditzakete zailtasunak? Eta, gure ikasleek, euskara gehiago erabili nahiko balute, erraza ikusten al dute? Non izan ditzakete zailtasunak? Ikusiko balute euskara gehiago erabiltzea ez dela zaila eta gainera ondo ere pasa daitekeela, saiatzeko prest egon daitezke hainbat?
- Ondorio horretara iristen bagara, mezu hauek eman ahal izango dizkiegu:
  - o Euskara beraien artean gehiago erabiltzea ez da erraza harremanak gaztelaniaz finkatuta daudelako baina zailegia ere ez da eta gainera gustura ere egin daiteke. Hori buruan izatea nahi genuke eta segurenik horren inguruan jolas edo dinamika proposamenen bat ere egingo diegu.
  - o Gu erabilerarekin arduratuta gaude eta prest gaude laguntzeko, baina beraien aldetik euskara gehiago erabiltzeko jarrera beharrezkoa da eta asko eskertuko genieke ahalegina egitea. Ez ditugu epaituko, baina hainbat proposamen egingo dizkiegu eta, seguruenik, batzuetan atentzioa ere deituko diegu euskara gehiago erabil dezaten.

## Zer da ondoko gauza bakoitza zure kulturarentzat?

Zuek \_\_\_\_\_ herrialdekoak zarete.

Saiatu zaitezte leku hartan kokatzen eta hangoak bazinete bezala erantzuten. Zalantzak izan ditzakezue, baina daukazuen erreferentzien arabera erantzun.

	Bai	Ez
Parte hartzen al duzue olinpiadetan?		
Zuen kirolen artean futbola ere ba al dago?		
Zuen herrialdeko komunikabideek egin al zioten jarraipenik munduko futbol txapelketari?		
Madona abeslaria ezagutzen al duzue?		
Zuen herrialdeko telebistetan botatzen al dituzte Madonaren bideoklipak?		
Mozart musikaria nor den ba al dakizue?		
Musika klasiko kontzerturik izaten al da zuen herrialdean?		
Batukada edo antzeko perkusio talderik ba al da zuen herrialdean?		
<i>Operación triunfo</i> zer den ba al dakizue? (dena delako hizkuntzan)		
Zuen herrialdean ba al da <i>Operación triunfo</i> moduko programarik?		
You tubeko bideoak ikusten al dituzue?		
Facebook erabiltzen al duzue?		
Ferrari kotxe marka ezagutzen al duzue?		

## Nolakoa izan nahi dut?

Euskalduna izan nahi dut, baina euskaldun izateko modu asko ere egon daitezke. Nolakoa izan nahi nuke? Idatz ezazue definizio bat.

### Nolakoa izan nahi dut?

---

---

Saioan zehar hitz egindakoak erabiltzea gomendatzen dizuegu definizioa idazteko, baina lagungarri bazaizue, ondoko galdera hauek erantzunez definizioa osatzeko ideiak atera ditzakezue:

- Nolako harremana nahi dugu beste kulturekin? Batere ez, irekia, handia, etengabekoa, azalekoa...
- Nola ikusi nahi dugu gure burua? Besteak baino hobea, gure buruarekin gustura egotea, besteengandik oso erraz ezberdinduko dena...
- Nolako harremana nahi dugu hizkuntzekin? Elebakarra izan nahi dugu eleaniztunak (zenbat hizkuntza?)...
- Nolako harremana nahi nuke euskararekin? Ahal dudan harreman guztietan euskara erabili nahi genuke, ez zaigu axola...
- ...

# Erreferenteen murala

Institurako proposamena

9/12 jarduera

## Kokatzea

DBH1koekin hirugarren hiru hilekoan egiteko jarduera.

Helburua: bi dira helburuak. Euskarazko erreferenteak eskaintzea eta euskara balio modernoekin lotzea (euskaraz beraientzat ere gustukoak diren gauzak egiten direla ikustea).

*Eizmendi Arsuaga, Iñaki  
ebete hizkuntza-zerbitzuak  
2014ko otsailean*

## Helburua:

- Ikasleek euskara gauza berri eta erakargarriekin ere lotzea
- Euskarazko erreferenteak izatea.
- Ikasleek zuzenean parte hartzea erreferenteen bilaketan.

## Azalpena:

- Saio batean erreferenteei buruzko dinamika bat egingo dugu.
- Kokatzea: azken urteetan euskaraz gauza asko eta interesgarriak sortzen ari direla ikusten dugu, baina ez daukagu argi ikasleek hori ezagutzen ote duten. Saio honetan horren inguruko jolas bat egin nahi dugu eta hurrengo asteetarako proposamen bat ere egingo diegu. Atsegina eta gustukoa izango dutela ziur gaude.
- Binaka jarriko ditugu:
  - o Banaka, galdera hauek egingo dizkiegu.
  - o 1.- Aktoreak
  - o 2.- Musika taldeak edo abeslariak azken bi urteetan diskoren bat atera dutenak
  - o 3.- Hizkuntza horrekin identifikatzen ditugun kirolariak
  - o 4.- Idazleak
  - o 5.- Telebista programak edo irrati saioak
  - o 6.- Weguneak
  - o Galderak erantzuteko minutu bat izango dute
  - o Bikote batzuk euskarazkoen zerrenda egin behar dute, beste batzuk gaztelaniazkoena eta besteek ingelesdunena.
- Zein izango da zerrendarik luzeena? Zein erakargarriena? Euskarazkoak ba al ditu hutsuneak?
- Euskaraz gauza asko eta erakargarriak sortzen direla ikustea nahi dugu
- Irakasleak astero kultur jarduera edo ikuskizun batekin lotura duen hiru proposamen eramango ditu gelara:
  - o Herrian izango den ekitaldi bat
  - o Zinea
  - o Musika abesti bat (interneten ikus daitekeena)
  - o Pelikularen bat (interneten ikus daitekeena)
  - o Web-gune bat
  - o Bertso saio bat: zuzeneko, telebista bidezkoa...

# ebete

- Telebista saio bat
- Aldizkari bat, liburu bat...
- ...
- Ikasleek ere eraman ditzakete proposamenak. Baina irakasleak beti eramango ditu beti egon dadin non aukeratua.
- Guztion artean bat aukeratuko da.
- Astean zehar hori ikustera-entzutera-bizitzera gonbidatuko ditugu.
- Noski, borondatezkoa izango da.
- Astea pasatzean, horri buruz galdetuko zaie: Zer moduz? Gustatu zaie? Zein da inpresioa?...
- Mural handi bat jarriko dugu gelan edo pasiloan. Jarduera egin-ikusi dutenek puntuazio bat emango diote bakoitzari: lehenengoa erdian jarriko da eta besteak gorago edo beherago. Ekitaldia-ekintza zein izan den jarriko da eta adjetibo edo hitz pare bat ondoan.
- Astero jarduera berri bat aukeratuko da.
- Ikasturtean zehar murala gero eta gehiago osatuko dugu. Gero eta gauza gehiago, gero eta beteagoa, gero eta erreferente gehiago...

## **Jarduera bi asteren barruan egiteko moldaketa**

- Jarduera bi edo hiru hilabetetan zehar egitea izan daiteke egokiena. Baita, aukera ikusiko bagenu, ikasturte osoan zehar ere.
- Baina denbora laburragoan ere egin daiteke intentsitate handiagoa ematen badiogu.
- Adibidez, bi astetan zehar:
  - Egunero ikastetxean bertan ikusi-entzun daitekeen zerbait aukeratu + ikusi + baloratu eta muralean jarri
  - Egunero etxetik erraz entzun-ikusi dezaketen zerbait aukeratu + hurrengo egunean baloratu eta muralean jarri
- Bi astetan zehar 10 erreferente aurkeztuko genizkieke

**ebete**



# Hiru B: berria, betikoa, bitxia

Institukurako proposamena

10/12 jarduera

## Kokatzea

DBH2koekin hirugarren hiru hilekoan egiteko jarduera.

Helburua: bi dira helburuak. Euskarari buruz hausnartzea eta euskarazko erreferenteak eskaintzea.

Ezaugarriak: euskarari buruzko mezu batzuk eman nahi dizkiegu, baina batez ere euskarazko erreferente asko izatera begira jolas bat proposatu nahi diegu.

*Eizmendi Arsuaga, Iñaki  
ebete hizkuntza-zerbitzuak  
2014ko otsailean*

## Helburuak

- Inguruko hizkuntza-errealitateaz jabetzen hastea.
- Euskarazko erreferenteak (musika) eskaintzea.

## Jardueraren azalpena

### Lehenengo urratsa:

- Hizkuntzen inguruan hitz egin nahi dugula esango diegu. Munduan hizkuntza asko hitz egiten dira eta gure ezaugarrietako bat da hemen euskara daukagula. Baina nolakoa da euskara munduko hizkuntzen artean?
- Zenbait galdera egingo dizkiegu eta horren inguruan hitz egingo dugu:
  - o Zenbat hizkuntza hitz egiten dira munduan? (kopuru batzuk esan ondoren datua emango diegu: 6000 baino gehiago).
  - o Askok edo gutxi iruditzen zaie?
  - o Baina hizkuntza batzuk jende askok erabiltzen ditu eta beste batzuk gutxi: zein hizkuntza dira jende askok hitz egiten dituenak? Zein jarriko lituzkete?
  - o Eta jende gutxi hitz egiten dituenak? Zein datozkie burura? (agian hainbat hizkuntzen datuak eskura izatea ondo etorriko zaigu, oso posible baita beraien pertzepzioa eta errealitateak bat ez egitea).
- Euskarari buruz galdetuko diegu:
  - o Non kokatuko genuke euskara? Hiztun asko edo gutxi dituenetan?
  - o Mezu bat emango diegu: hiztun askoko hizkuntzen aldean euskarak gutxi ditu. Baina euskara handia edo txikia da?
  - o 6000 hizkuntza horietatik, euskara zenbatgarren lekuan jarriko lukete: gehien hitz egiten diren 1000 hizkuntzen artean, 1000 eta 2000 artean, 2000 eta 3000...
  - o Datua emango diegu: euskara lehenengo multzoan dago. 1000 horien artean eta seguruenik erdialdera.
  - o Zer iruditzen zaie euskara gehien erabiltzen diren hizkuntzen artean egotea?
- Kultur sormenari buruz eta euskara egiteari buruz hitz egingo dugu:

- Inguruko hizkuntza batzuen ondoan euskarak hiztun gutxi ditu.
- Baina asko gara eta gainera oso sortzaileak. Zenbat eta zenbat gauza egiten diren euskaraz.
- Zein musika talde, idazle, aktore, bertsolari... ezagutzen dituzte? Zerrenda bat egingo dugu ahalik eta luzeena.
- Proposamen bat: aukeratuko ditugu hiru abesti? Hiru B? Berria, betikoa eta bitxia.

## Bigarren urratsa:

- Hiru abesti aukeratu nahi ditugu B+B+B
- Kaxa batean parpextoak jarriko ditugu eta ikasle bakoitzak bat atera behar du
- Papertxoetan hiru aukera hauetako bat aterako da: Berria–Betikoa–Bitxia
- Bakoitzak dagokio abesti bat aukeratu behar du hurrengo egunetan eta ekarri egin behar du. Helduen laguntza bilatu dezakete edo taldekideena.
- Abestiak izan behar dute:
  - Berri bat: azken bi urteetan agertu den abesti berri bat (eta beraien gustukoa)
  - Betiko abesti bat: abesti tradizional bat. Gustatzen zaiena.
  - Bitxi bat: abesti bitxi edo arraro bat (musika estilo ez ohikoa edo exotikoa, musika tresna arraroa, abesteko modua...).
- Abestiak ekartzen dituztenean, hainbat modu egon daitezke aukeratzeko:
  - Saio batean multzo bateko abesti guztiak entzutea eta bat aukeratzea. Hiru saioen ondoren hiru abestiak aukeratuko genituzke.
  - Aste batzuetan zehar, tarteka abesti bat edo bi entzutea eta dagokion multzoaren araberrako puntuazioa ematea bakoitzak edo denon artean:
    - Abesti berria bada: gustatzen zaizkigu estiloa, melodia eta letra?
    - Tradizionala bada: Gustatzen zaigu? Ezaguna da? Abesteko modukoa?...
    - Bitxia bada: Benetan bitxia da? Zertan da bitxia?
- Aukeratutako hiru abestiak eta letrak kartulinetan idatzi eta paretan itsatsiko ditugu (edo eskolako web orrian jarri).
- *Nahi izanez gero tartean behin errepikatu daiteke prozedura (talde berriak ezagutzeko, abesti berriak). Beste arlo batzuekin ere egin daiteke: zinema, marrazki bizidunak, bertsoak–bertsolariak,...*

# Euskararekin harremana indartzea erraza da?

Institutuko ikasleekin motibazioa lantzeko  
proiektua

11 / 12 jarduera

## Kokatzea

*DBHko hirugarren mailakoekin hirugarren hiru hilekoan egiteko jarduera.*

*Ikustea nahi dugu euskara beraien hizkuntzetako bat izan arren, gaztelaniarekin harreman handiagoa dutela.*

*Euskararekin harremana indartzea erraza izan al daiteke? Euskara gehiago erabiltzea erraza izan al daiteke?*

*Eizmendi Arsuaga, Iñaki  
ebete hizkuntza-zerbitzuak  
2014ko otsaila*

## Helburuak:

- Euskararekin duten harremanari buruz hitz egitea
- Euskararen erabilerari buruz hitz egitea: gehiago erabili nahi lukete? Erraza al da hori?

## Lehenengo saioaren azalpena:

- Gaia kokatuko dugu: euskararen eguna hurbiltzen ari da eta ospatuko dugu. Euskarari egun bat ematea ez dago gaizki, baina egunerokotasunean ematen al diogu tarterik? Nolakoa?
- Horren inguruan hausnartu nahi dugu. Ez ditugu epaitu nahi. Soilik euskararen inguruko hausnarketa egin nahi dugu.
- Bost egoera jarrik dizkiegu:
  - o Familia: etxea, osaba-izebak, lehengusuak...
  - o Festa giroa: jaiak, diskoteka, jaialdiak...
  - o Sare sozialak eta komunikabideak
  - o Eskola orduz kanpoko jarduerak: kirola, musika...
  - o Musika
- Galderak egingo dizkiegu puntu bakoitzaren inguruan:
  - o Zenbatek erabiltzen duzue euskara etxean? Eta osaba-izebekin? Eta lehengusuekin?
  - o Zein dira zuen gustuko festak edo festarako giroak? Jaiak, diskotekak edo dena delakoak.
  - o Zein sare sozial erabiltzen dituzue? Telebista ikusten duzuean zer ikusten duzue?...
  - o Zein jarduera egiten dituzue institututik kanpo? Musika, kirola...
  - o Zein musika talde gustatzen zaizkizue?...
- Puntu bakoitza aipatzen dugunean puntuak emango dizkiogu bakoitzari.
  - o Ikasle bakoitzak galdera bakoitzeko bost gometza izango ditu
  - o Gelako horma batean bi kartulina handi jarriko ditugu: batek euskara adierazten du eta besteak gaztelania.
  - o Galdera egiten dugunean, ikasleak altxa, eta kartulinetan gometzak jarri behar dituzte: ikasle bakoitzak erabakiko du

- zenbat gometza jarri bakoitzean. Gune edo egoera bat guztia gaztelaniaz bada, bost gometzak kartulina horretan, biak agertzen badira bati bat edo bi eta besteari besteak...
- Bost galderak egindakoa kartulina bakoitzean zenbat gometza dauden ikusi ahal izango dugu.
  - Lehenengo ondorioa: elebidunak gara eta gure burua euskalduntzat ere hartzen dugu baina egunerokotasunean eta gure gustuko egoeretan ez du leku handiegia.
  - Mezu nagusia: gaztelaniazkoan asko agertzea ez da inondik ere negatiboa. Horrek esan nahi du gaztelaniarekin harremana handia eta positiboa dela. Baina zergatik ez indartu euskararekin dugun harremana? Asko irabaziko genuke bi kartulinak beteta baleude, horrek esan nahiko luke bi hizkuntzekin harremana indartsua eta positiboa dela.

## **Bigarren saioaren azalpena:**

- Aurreko egunean landutakoa eta ondorioak azalduko dizkiegu.
- Euskararekin harremana indartzeari buruz hitz egingo dugu:
  - Zer egin dezakegu euskararekin harremana indartu nahiko bagenu? Zein izan daiteke bidea? Zer bururatzen zaie?
  - Taldeka jarriko ditugu eta gutxienez bost ideia proposatu behar dituzte.
  - Proposamen guztiak arbelean idatziko ditugu.
  - Gero talde bakoitzak bi aukeratu behar ditu irizpide hauen arabera:
    - Zein da ideia hobereena? Gehien gustatzen zaizuen?
    - Zein da lortzeko errazena? Epe motzean lortu daitekeena?
  - Bi horietan ahalegintzera gonbidatuko ditugu. Aukera ikusten badugu epe motz batean eta modu erraz batean landu daitekeen zerbait izaten ahaleginduko gara (agian egokitzen lagundu beharko diegu). Modu horretan guk jarraipena egin ahal izango diogu eta errefortzu positiboak eman ere bai.
  - Ondorio batera ere iritsi nahi dugu: euskararekin harremana indartzeko bide eraginkorra euskara gehiago erabiltzea da, edozein egoeratan. Ondoriora beraiek iristen badira, hobe. Bestela saioaren amaieran guk esango diegu.

# Zergatik eta nola sustatu euskara?

Institukurako proposamena

12/12 jarduera

**Kokatzea:**

DBH4koekin hirugarren hilean egiteko jarduera.

Euskarari buruz nolako mezuak ematen dituzten eta zein bizipen dituzten ikusi nahi da. Eta, batez ere, zirrikituak topatu nahi ditugu: mezu egokiak eta euskararen aldekoak ikusi nahi ditugu. Beraiek ere mezu horiek ikusten badituzte aurrera egitea errazagoa izango da.

*Eizmendi Arsuaga, Iñaki  
ebete hizkuntza-zerbitzuak  
2013ko maiatzean*

Kokatzea:

- Azalpen bat emango diegu: gizarte honek elebitasunaren aldeko apustua egin du. Eragile ia guztiak horren alde daude (talde politikoak, kultur eragileak...). Azken hamarkadetan asko egin da horri begira.
- Ahal dela, bideo bat jarriko diegu egin diren gauza batzuk azaltzen dituen eta bestela zerrenda bat prestatu eta arbelean jarriko dugu (hezkontza, prentsa, euskaltegiak, mintzapraktikak, kultur jarduerak, haurrentzako eskaintza, Korrika eta bestelako jaialdiak...).
- Nola ikusten dute beraiek? Beraiek gizarte horren parte dira, eta, adibidez, euskara ikasten ari dira. Horri buruz hausnartu nahi dugu eta dinamika bat proposatuko diegu.

Egiten dena egokia al da?

- Taldeka banatuko ditugu. 3-4 kideko taldeak.
- Lau galdera egingo dizkiegu. Galdera bat erantzuten dutenean hurrengoa ematen diegu.
- Batzuk aldeko argumentuak ematea nahi dugu eta beste batzuk kontrakoak. Horregatik, galdera bakoitza egin aurretik, kutxatxo batetik papertxo bat aterako du talde bakoitzak. Bertan jarriko du: alde - kontra. Dagokien rola hartu behar dute.
- Kokatzea: Gizarteak elebitasunaren aldeko apustua egin du. Gaur egun Hego Euskal Herriko biztanleen %100 gaztelaniaz egiteko gai da, euskaraz berriz %35. Gizarteak elebiduna izatea nahi bada...
- 1.- Etorkizunean egokia al litzateke Euskal Herritar guztiek bi hizkuntza horiek jakitea?
- 2.- Guztiek bi hizkuntzak ikastearen alde bagaude, zerbait egin behar da horrela izan dadin edo besterik gabe lortuko da?
- 3.- Hartu izan diren neurrien artean daude euskaltegiak diruz laguntzea (baina ez da doan euskara ikastea), euskarazko komunikabideak diruz laguntzea, eta abar. Egokiak dira horrelako bideak?
- Galderen inguruan hitz egingo dugu eta azken mezua emango diegu: gero eta gizarte elebidunagoa da. Gero eta jende gehiagok dakizki bi hizkuntzak. Horren alde ari gara asko eta asko eta neurri batzuk ere hartu dira. Batzuk egokiak dira, beste batzuk eztabaidagarriak... Eta beraiek gizarte horren parte dira.



## Bigarren saioa: Zer egin behar litzateke?

- Bi taldetan banatuko ditugu. Ahal dela talde bakoitza gela batean egongo da.
- Gaia: beraiek ere gizarte hau gero eta elebidunagoa izatea nahi dute. Egia edo gezurra izan, berdin zaigu, egoera horretan jarri behar dute.
- Adieraziko diegun erronka: bost neurri aukeratu behar dituzue horretan lagunduko dutenak. Zein taldek aukeratuko ditu egokienak?
- Talde banatzen ditugunean, A eta B taldeari galdera berriz azalduko diegu baina modu ezberdinean:
  - o A taldea: lortu behar duzue 10 urteko epean gizarte osoa elebiduna izatea. Bai edo bai. Zuen lana hori lortzea da eta nahi dituzuen tresnak eta baliabideak dituzue horretarako. Zer egingo zenukete? Ideien ekaitza egin dezatela (eta apuntatu) eta bost eraginkorrenak aukeratu.
  - o B taldea: elebitasuna sustatu nahi duzue baina jendea gustura sentituz, inor behartu gabe, zoriontasunean... Zer egingo zenukete? Ideien ekaitza eta bost egokienak aukeratu.
- 10 minutu izango dituzte eta ondoren talde osoan bi zerrendak irakurriko dituzte eta azalduko dituzte.
- Galderan egin dugun aldaketa aipatuko diegu: batzuen neurriak gogorrak eta epe motzera begirakoak izan behar zuten eta besteenak atseginak eta eperik gabekoak.
- Ideia edo ondorio bat azalduko diegu eta nahi badugu horri buruz ere hitz egin dezakegu: gizarte gero eta elebidunagoa izan dadin neurriak oso ezberdinak izan daitezke. Gizarte honetan elebitasunaren aldeko apustua egiten da, baina neurriak hartzerakoan zailtasunak, zalantzak eta jokabide ezberdinak ikusten dira. Egokiena zer litzateke, bi norabideen arteko oreka bat?

Oharra: aukera bat da dinamika berezi batekin egiteko: Epaiketa. Bi taldetan banatu, talde bakoitzak argumentuak prestatu, abokatuak, testiguak... Talde batek defendatu behar du gehiago egin behar dela. Bidea ona dela baina gehiago egin behar dela. Zergatik? Nola? Beste taldeak defendatu behar du gaur egungoa gehiegizkoa dela. Zergatik? Zer egin behar litzateke? Zer ez?

**ebete**

## Ohituren dinamika

### Zein hizkuntza erabiltzen dugu edo erabiliko genuke egoera hauetan?

- 1- Lau-bost lagun euskaraz ari gara. Beste ezagun bat hurbiltzen da guregana eta gaztelaniaz hasten da gurekin.
  - Euskalduna da baina gaztelaniaz egin nahi izaten du.
  - Euskaraz egiteko gai da baina kosta egiten zaio.
  - Ez daki euskaraz.
  
- 2- Kaletik noa eta...
  - Ezezagun bat niregana euskaraz zuzentzen da zerbait galdetuz
  - Ezezagun bat niregana gaztelaniaz zuzentzen da zerbait galdetuz
  
- 3- Lagunartean gaztelaniaz ari gara eta kuadrillako batek euskaraz egin behar genukeela proposatzen du.
  
- 4- Autobusa hartu behar dut baina ez dakit zein ordutan den. Geltokian zain dagoen beste pertsona bati galdetzea erabakitzen dut.
  - Ez dut ezagutzen eta heldua da.
  - Ez dut ezagutzen eta gaztea da.
  - Ez dut ezagutzen eta haurra da.
  - Herrian izan beharrean, autobusa Ondarroan edo Donostian hartu beharko banu berdin jokatu nuke?
  
- 5- Bilbora noa erosketa batzuk egitera. Dendaz denda nabil erropak erosten, zapatilak, kiroletako gauzak...
  - Zein hizkuntzatan eskatuko dut?
  - Eta nire buruari esango banio... saiatu behar dut ba euskaraz eskatzen! Leku guztietan euskaraz eskatuko nuke? Zerbait hartuko nuke kontutan hori erabakitzeke? (adb: kartelak euskaraz ote dauden, dendaren izena, dendariaren itxura, beste bezeroekin zein hizkuntzatan ari den...)
  
- 6- ...

## *Zer aurkituko duzue? I*

### Institutuko ikasleekin motibazioa lantzeko proiektua

#### *Kokatzea*

Lehen Hezkuntzako seigarren mailakoak datorren ikasturtean institutuko ikasleak izango dira.

DBH ikasleekin, berriz, jarreraren inguruan hainbat jarduera egiten ari gara.

Bi horiek lotu nahi dira orainoan:

Institutuko ikasleak LH6koenagan joatea nahi da, eta haintzat erreferente izatea. Saio bat prestatuko da non ikasle horiek LH6koekin euskararen erabilerari buruz hitz egingo duten.

Institutura iristen direnean beste saio bat egingo da, institutuan kokatzeko aurkezpen moduko bat.

*ebete hizkuntza-zerbitzuak*  
*2014ko martxoan*

## Helburuak:

- Institutuko dinamikaren berri eman nahi zaie LH6ko ikasleei, eta, bereziki, euskararen erabilerari buruz egoera zein den eta beraiengandik zer espero den azalduko zaie.

## Nola egingo da?

- Udaberrian DBHko ikasle talde bat osatuko da. Borondatezkoa.
- Helburua azalduko zaie eta dinamika prestatuko da beraiekin.
- Binaka edo hiruak joango dira LH6ko taldeetara.
- Bi saio egingo dira: bat institutuari buruzkoa eta bestea euskararen erabilerari buruzkoa.
  
- Udazkenean berriz talde bat osatuko da (udaberriko berbera izan daiteke).
- Helburua azalduko zaie eta dinamika prestatuko da beraiekin.
- Binaka edo hiruak joango dira DBH1eko taldeetara (hauek dira udaberrian LH6n zeudenak).

## Udaberriko lehenengo saioa:

- DBHko ikasle bakoitzak bere burua aurkeztuko du: izena, non ikasi zuen, zein gai edo arlotan duen erraztasuna eta zailtasunak, zein alde aurkitu zuen LHtik DBHra iristean...
- Saioaren arrazoia azalduko diete:
  - o Institutuko ikasleen euskara batzordekoak dira.
  - o Ikasleak direnez, institutuaren dinamikaren berri azaldu nahi diete.
  - o Euskara batzordekoak direnez: euskararen erabileraren inguruan ere hitz egin nahi dute.
- Hizkuntza aldetik zein alde dagoen ere azalduko dute: zenbat euskara erabiltzen zuten LHn eta DBHn, Batxilergoan zer aurkitu duten, bere garaian zerk eman zien atentzioa...
  
- Institutuaren berri emateko 5 galderen zerrenda bat aurkeztuko zaie LHko ikasleei. Adb:
  - o Zein dira gai zailenak?
  - o Zein da aldaketarik handiena LHtik DBHra?
  - o Zer moduz beste ikastetxeetakoekin nahastean?
  - o ...
- *(Saioak prestatzerakoan institutuko ikasleekin beraiekin aukeratu daitezke gai garrantzitsuenak edo deigarrienak eta horien erantzunak).*

- Ikasleek postitetan idatzi beharko dute gehien interesatzen zaizkien bi galderen zenbakiak eta guztiak bilduko dira.
- Aukeratutako ordenean erantzungo dituzte institutuko ikasleek galderak.
- Erantzuten duten bitartean ikasleekin elkarrizketak ere sortu daitezke: galdera gehiago egin, horiek erantzun...
- Oharrak:
  - o Institutuko ikasleei argi azaldu behar zaie, institutuari buruzko elkarrizketak sortzen direnean euskara hutsean izan behar dutela. Hau da: ikasleren batek beraiei erdaraz egiten badie ez ulertuarena egin behar dutela eta euskaraz egitea eskatu.
  - o Power punta erabiltzeko aukera balego, institutuko hainbat guneren argazkiak ere egin daitezke eta power pointean jarri. Azalpenak ematerakoan atzean argazkiak jar daitezke. (Ez dute testuarekin lotura zuzena izan beharrik, automatikoki pasatzen diren argazkiak izan daitezke).

## Udaberriko bigarren saioa:

- Aurreko saioan institutuaren berri hitz egin da baina oraingoan gai garrantzitsu bat landu nahi da: euskararen erabilera institutuan.
- Lehenengo mezua:
  - o Eskualdean gero eta euskaldun gehiago gara: gero eta gehiagok dakigu euskara. Zuek ere hor zaudete.
  - o Euskararen erabilera ere gero eta handiagoa.
  - o Argi daukagu euskara erabiltzea gure esku dagoela eta guk gero eta gehiago erabili nahi dugu.
  - o Ikusi dugu institutura iristean hainbatek euskara gutxiago erabiltzen dutela, eta horrekin kezkatuta gaude.
- LH6ko ikasleekin euskararen erabilerari buruz hitz egingo dute:
  - o Ikasleak binaka edo hirunaka jarriko dira eta orri bat banatuko zaie.
  - o Orrian hiru galdera agertuko dira:
    - Gela barruan, 1etik 10era, zenbat euskara erabiltzen duzue lagunekin?
    - Gelatik kanpo, 1etik 10era zenbat euskara erabiltzen duzue lagunekin?
    - Ikastetxetik kanpo, 1etik 10era, zenbat euskara erabiltzen duzue lagunekin?
    - 1 = beti euskaraz 10 = inoiz ez

- Zenbakia jartzeaz gain margotu ere egin behar dute: lauki luze bat jar daiteke eta horrek irudikatu Otik 10erako eskala.
- Betetzen dutenean paretan itsatsiko ditugu.
  
- Bigarren mezua:
  - Euskara asko erabiltzen duzue, gutxienez eskolan, baina baita hainbatek eskolatik kanpo ere.
  - Gero eta euskara maila hobea duzue, hori badakigu. Gero eta errazago egiten duzue. Eta hori badakizue zergatik den, ezta? Askok erabiltzen duzuelako (gutxienez ikastetxean).
  - Institutuan batzuk euskara erabiltzen dugu eta askok gero eta gehiago erabili nahi dugu.
  - Zuek ere erabil dezakezue eta horretara gonbidatzen zaituztegu. Badakigu askok erraztasun gehiago duzuela gaztelaniaz eta zuen artean gaztelaniaz egiteko ohitura duzuela.
  - DBHra iristen direnean gutxienez LHn erabiltzen duten hainbeste erabiltzera gonbidatzen ditugu: ez dezala erabilerak behera egin. (Erabileraren inguruko ariketari erreferentzia egingo zaio).
  - Ez hori soilik: gehiago erabiltzera ere gonbidatzen ditugu. Prest egon daitezke? Gu laguntzeko prest gaude.
  - Irailean ikusiko dugu elkar.

## Iraileko saioa:

*(Institutuko euskararen erabilera neurketarik ba al dugu? Horrela ez bada, komeniko litzateke saio hauen aurretik bat egitea. Oso sinplea izan daiteke. Datu hori erabiliko dugu saioan)*

- DBHko ikasle bakoitzak bere burua aurkeztuko du: izena, non ikasi zuen, zein kurtsotan dagoen...
  
- Saioaren arrazoa azalduko diete:
  - Institutuko ikasleen euskara batzordekoak dira.
  - Lehengo urtean egindako saioa aipatuko diete: gogoratzen zarete...?
  
- Euskararen erabilerari buruz hitz egingo dugu:
  - Erabilera datu batzuk emango dizkiegu:
    - Erandio eta eskualdeko erabilera
    - Institutuko erabilera
  - Institutuan denok euskaldunak gara: guztiok badakigu. Baina erabilera ez da handiegia.

# ebete

- Ez diogu inori errurik bota nahi, baina erabilera handiagoa izatea nahi dugu.
- Jar diezaiozun gure buruari erronka: zenbatera igo daiteke euskararen erabilera urte batean?
- Horri buruz hitz egingo dugu eta adosten saiatuko gara:
  - Non jarri dezakegu helburua?
  - Zein zailtasun izan ditzakegu? Zer dago gure esku?
- Mezu nagusia emango diete:
  - Euskara asko erabiltzera gonbidatzen zaituztegu.
  - Euskararen erabilera institutuan indartu egin nahi dugu. Gora egin dezake eta hori nahi dugu. Horretan ahaleginduko gara.
  - Zein da abiapuntua? Gutxienez lehengo urtean erabiltzen zenuten adina erabiltzea, eta hortik aurrera euskara erabiltzeko gogoia erakustea.
- Euskararen inguruan egingo dituzten jardueren berri emango zaie:
  - Euskararen eguna, korrika...
  - Euskararen erabilera eragile izatera gonbidatuko dituzte. Adibidez: euskara batzorde bat osatzera eta bertan parte hartzera,
  - Lortuko al dugu erabilera helburua?



## *Zer aurkituko duzue? II*

### Institutuko ikasleekin motibazioa lantzeko proiektua

#### *Kokatzea*

DBH4ko ikasleak Batxilergora iristean ikastetxez aldatu behar dute.

Euskararen erabilera indartzera begira, aproposa da Batxilergoan dauden ikasleak DBH4n daudenengana joatea eta zer aurkituko duten azaltzea: zein den institutuko dinamika eta bereziki euskarari dagokionez zein den egoera eta zer espero den beraiengandik.

*ebete hizkuntza-zerbitzuak*  
*2014ko martxoan*

## Helburuak:

- Institutuko dinamikaren berri eman nahi zaie DBH4ko ikasleei, eta, bereziki, euskararen erabilerari buruz egoera zein den eta beraiengandik zer espero den azalduko zaie.

## Nola egingo da?

- Batxilergoko lehenengo mailako ikasle talde bat osatuko da. Borondatezkoa.
- Helburua azalduko zaie eta dinamika prestatuko da.
- Binaka edo hirunaka joango dira DBH4ko taldeetara.
- Talde bakoitzean bi saio egingo dira. Bat institutuaren dinamikari buruz hitz egiteko eta bestea euskararen erabilerari buruz hitz egiteko. Saio bakarra egin beharko balitz dinamika moldatu egin behar da eta sinpleagoa izan beharko du.

## Lehenengo urratsa: kokatzea

- Batxilergoko ikasle bakoitzak bere burua aurkeztuko du: izena, non ikasi zuen, zein gai edo arlotan duen erraztasuna eta zailtasunak, zein alde aurkitu zuen DBHtik Batxilergora iristean...
- Saioaren arrazoia azalduko diete:
  - o Institutuko ikasleen euskara batzordekoak dira.
  - o Ikasleak direnez, institutuaren dinamikaren berri azaldu nahi diete
  - o Euskara batzordekoak direnez: euskararen erabileraren inguruan ere hitz egin nahi dute.
- Hizkuntza aldetik zein alde dagoen ere azalduko dute: zenbat euskara erabiltzen zuten LHn eta DBHn, Batxilergoan zer aurkitu duten, bere garaian zerk eman zien atentzioa...

## Bigarren urratsa: institutuaren berri ematea

- Institutuaren berri emateko 8 galderen zerrenda bat aurkeztuko zaie DBHko ikasleei. Adb:
  - o Zein dira gai zailenak?
  - o Zein da aldaketarik handiena DBHtik Batxilergora?
  - o Zein aukera daude ikasketei dagokionez? Zein bide hautatu daitezke?
  - o ...
- *(Saioak prestatzerakoan Batxilergoko ikasleekin beraiekin aukeratu daitezke gai garrantzitsuenak edo deigarrienak eta horien erantzunak).*
- Ikasleek postitetan idatzi beharko dute gehien interesatzen zaizkien bi galderen zenbakiak eta guztiak bilduko dira.

- Aukeratutako ordenean erantzungo dituzte Batxilergoko ikasleek galderak.
- Erantzuten duten bitartean ikasleekin elkarrizketak ere sortu daitezke: galdera gehiago egin, horiek erantzun...
- Oharrak:
  - o Batxilergoko ikasleei argi azaldu behar zaie, institutuari buruzko elkarrizketak sortzen direnean euskara hutsean izan behar dutela. Hau da: ikasleren batek beraiei erdaraz egiten badie ez ulertuarena egin behar dutela eta euskaraz egitea eskatu.
  - o Power punta erabiltzeko aukera balego, institutuko hainbat guneren argazkiak ere egin daitezke eta power pointean jarri. Azalpenak ematerakoan atzean argazkiak jar daitezke. (Ez dute testuarekin lotura zuzena izan beharrik, autonamatikoki pasatzen diren argazkiak izan daitezke).

## Hirugarren urratsa: euskararen gaian kokatzeko dinamika

- Aurreko saioan institutuaren berri hitz egin da baina oraingoan gai garrantzitsu bat landu nahi da: euskararen erabilera institutuan.
- Horretan sartu aurretik, gaina kokatzeko dinamika bat egingo dugu:
  - o Hirunaka edo launaka jarri behar dute.
  - o Galdera batzuk egingo dizkiegu. Zenbat asmatuko dituzte?
  - o 1.- Zenbat hizkuntza hitz egiten diren Euskal Herrian? Eta zenbat hizkuntza hitz egiten dira munduan? Euskara, gaztelania, frantsesa, arabiera, errumaniera, katalana... Zein kopuru jarriko lukete? Orri batean idatzi behar dute eta ondoren bakoitzak kopurua esan behar du. Datua emango diegu: Euskal Herrian 104 eta munduan 6900. Zer iruditzen zaie? Asko dira? Testuingurua eleanitza da eta horrela izango da.
  - o 2.- Hizkuntza horien artean zenbagarrena da euskara? Hau da: 1etik 7000 mila bitarte, eta hizkuntza hori dakien jende kopurua kontuan hartuz, euskara zenbagarrena da? Hitzun gehien dituen 1000 aurrenekotan legoke? 1000tik 2000ra? 2000tik 3000ra?... Idatzi dezatela eta ondoren komentatu bakoitzak zer jarri duen. Eraitza: lehenengo multzoan (500 eta 600 artean). Zer iruditzen zaie datu hori? Espero zuten?
  - o Eta hizkuntza indartsuenak neurtuko bagenitu? Zenbagarrena da euskara? Zenbat jendek dakien, zenbat erabiltzen den interneten (bilatzaileetan, twitterren, wikipedian...)... (Pantailan 10 irizpideak jar daitezke). Enbagarren jarriko lukete? Idatzi dezatela eta guztion artean komentatu. Eraitza: 51. Zer iruditzen zaie? Deigarria da? Euskara munduko hizkuntza indartsuenen artean egotea deigarria da?

- Datu hori horrela da eta poztekoa da. Baina leku horretan dago urteetan askok ahalegina egin dutelako (dugulako) horrela izan dadin. Euskara gero eta egoera hobean dago eta horrela izaten jarrai dezan nahi dugu.
- Gu harro gaude horretaz eta saiatzen gara indartzen jarrai dezan. Baina kezkatuta ere bagaude.

## Laugarren urratsa: euskararen erabilerari buruz hitz egitea

DBH4ko ikasleei mezu batzuk eman nahi dizkiegu. Batxilergoko ikasleekin adostu behar dira mezu horiek baina modu honetako zerbeit egokia izan daiteke:

- Institutuan euskararen erabilera ez da guk nahi genukeen modukoa.
- Askok erabiltzen dugu eta arro gaude.
- Euskara erabiltzeak edo ez erabiltzeak ez gaitu hobeak edo txarragoak egiten, bakoitzak nahi duena egin dezake.
- Guk erabili nahi dugu eta ahalegintzen gara. Erabiltzeko ohiturarik ez duenari laguntzeko prest ere bagaude.
- Euskara Batzorde bat ere badugu: hainbat jarduera antolatzen ditugu erabilera indartzera begira.
- Baina, euskara erabiliko genukeen edo erabili nahi genukeen askori zaila egiten zaigu euskara mantentzea beste batzuk beti erdaraz egiten badigute. Guk erdaraz ere ondo dakigu eta hori ere ona da. Zer gertatzen da? Guk euskaraz egin nahi izanda ere norbaitek beti erdaraz egiten badigu oso zaila dela euskara mantentzea. Saiatzen gara baina ez dugu beti lortzen.
- Hori da zuek institutura iristean aurkituko duzuen egoera. Gure gonbitea:
  - o Euskara egiteko ohitura edo gogoia duzuenak, ahalegindu horretan. Mantendu euskara. Animatu besteak euskaraz egitera.
  - o Euskaraz egiteko ohiturarik ez duzueneko (eta agian gogo berezirik ere ez), euskaraz egin nahi duenari ez oztoporik jarri. Ez egin beti zuek gaztelaniaz. Saiatu euskara ere erabiltzen. Lagunduko dizuegu!
- Euskara Batzordetik ere norabide honetan ahaleginduko gara.
- Noski, parte hartzera gonbidatuta zaudete.
- Euskara etorkizunean ere indartsuagoa izango da, eta guk nahi badugu orain baino indartsuagoa ere bai.

Mezuan zenbait gauza zaintzen ahalegindu beharko genuke:

- Ez ditugu epaitu nahi gaztelaniaz egiten dutena: erakarri nahi ditugu eta oztopo izan ez daitezen eskatu.
- Mezua positiboa da: euskara indartsu dago, gure esku dago gehiago indartzea, arro gaude, nahi dugulako egiten dugu...
- Zailtasunak ere ikusi behar dituzte: erabiler ez da nahi genukeen modukoa, ez da erraza guztia euskaraz egitea...
- Beraz, mezua Batxilergoko ikasleekin moldatu eta osatu daiteke, baina tonua eta hemen agertzen diren ezaugarriak zaintzea garrantzitsua da.